



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

## UDALAREN OSOKO BILKURA 2004ko otsailaren 26an egin zen ohiko bilera

### BERTARATU DIRENAK

#### ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- KARMELO SÁINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

### ZINEGOTZIAK

EAJ-P NV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.  
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.  
EAJ-PNV- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.  
EAJ-PNV- BEATRIZ RESA BARDECI and.  
EAJ-PNV- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.  
EAJ-PNV- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.  
EAJ-PNV.-JESUS BILBAO CURIEL jn.  
EAJ-PNV- JON LOIZAGA CAYERO jn.  
EAJ-PNV- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.  
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.  
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.  
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.  
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.  
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.  
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.  
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.  
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.  
IU-EB.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.  
IU-EB.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.  
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

### EUSKARA ITZULTZAILEA

IDOIA NOBLE GOIKOETXEA and.

### IDAZKARIA

M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta lauko otsailaren hogeita seian, iluntzeko zortziak direnean, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, ohiko bilera egiteko. **Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburua** izan da bileraren burua eta **idazkari andreak, M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ezker aldean agertzen diren zinegotziek ere parte hartu dute bileran eta, beraz, Udalbatza osatzen duten kideen legezko kopurua osatu dute. Alkate jaunaren ekimenaz, deialdirako deia aurretik egin zaie, tokian tokiko Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1. artikuluan ezarritakoa oinarritzat hartuta. Horrenbestez bete egin da eta aipatutako Legearen 21.1.c) artikuluan eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa.

Adierazitako orduan, lehenengo deialdian, Udalburutzak ekintza irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

## I.- ERABAKITZEKOAK

**1.- 2003ko AZAROAREN 13ko ETA 2004ko OTSAILAREN 17ko BILKUREN AKTAK ONESTEIA:** Izenburuan aipatutako bilkuretako aktak onetsi gabe daudela aipatu da; beraz, udalbatzaren osoko bilkurak onesteko jarri dira.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalbatzak, Osoko Bilkuran eta aho batez, 2003ko azaroaren 13ko eta 2004ko otsailaren 17ko bileretako aktak onetsi ditu.

**2.- LEIOA ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEAREN JAKINARAZPENA; HORI DA HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO ZERBITZUAREN EMAKIDADUNA; IZAN ERE, AIPATUTAKO ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEKO ENPRESEN PARTAIDETZA-OSAERA ALDATU DA:** 2004ko urtarrilaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

zen Alkatetza-Udalburutzaren 40/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak 2004ko urtarrilaren 21ean hartu zuen 6. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dute osoko bilkurak 2000-10-11 eguneko batzarrean hartutako 5. erabakiaren bitartez Leioa Aldi Baterako Enpresa Elkarteari adjudikatu zitzaiola hiri hondakin solidoak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren emakida.

Espediente horretan ezarritakoaren arabera, aipatutako Aldi Baterako Enpresa Elkarteak honako enpresa-eraketa du:

ENPRESA	PARTAIDETZA
URAZCA SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE, S.A.	%40
BYCAM SERVICIOS, EDIFICIOS E INFRAESTRUCTURAS, S.A.	%40
HEREDEROS DE CLAUDIO ALVAREZ SARRIA, S.L. (HALSA)	%20

2003-12-17 eguneko idazkiaren bitartez (sarrera-erregistroko zenbakia: 6.035), hiru enpresek baterako idazkia aurkeztu zuten eta bertan adierazitakoaren arabera, ados daude URAZCA SERVICIOS enpresak BYCAM SERVICIOS enpresaren lekuan subrogatzearekin; beraz, enpresak beste eraketa bat izango du, honakoa hain zuzen ere:

ENPRESA	PARTAIDETZA
URAZCA SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE, S.A.	%80
HEREDEROS DE CLAUDIO ALVAREZ SARRIA, S.L. (HALSA)	%20

Udal Bulego Teknikoak honako txostena egin du: ez dago inolako eragozpenik proposatutako kontratuaren zati baten lagapena baimentzeko; hala ere, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen testu bat egina onetsi zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretuaren 114. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dira, hau da:

- Kontratazio organoak (udalaren osoko bilkura) beren-beregi eta lagapena egin aurretik baimena ematea.
- Lagapena, adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen artean gauzatzea eskritura publikoan.

**Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak** aldeko irizpena eman dio Udal Bulego Teknikoak emandako txostenaren edukia berresteari.

## EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran aztertzeko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez** onetsi du Leioa Aldi Baterako Enpresa Elkartearen osatzen duten enpresen eraketa aldatzea; hori da udal honetan hiri hondakin solidoak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren emakidaduna. Ondorioz, baimena emango da Bycam Servicios,



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Edificios e Infraestructuras, S.A enpresaren %40ko partaidetza Urazca Servicios enpresari lagatzea, bere eskubide eta betebeharrak subrogatuz. Beraz, azken horrek Leioa Aldi Baterako Enpresa Elkartearen partaidetzaren %80 hartuko du bere gain. Udalari, lagapena gauzatzen duen eskritura publikoaren kopia eman beharko zaio. Hori guztia, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak emandako irizpenaren arabera egingo da.

**3.- PP UDAL TALDEAREN PROPOSAMENA, UDALAREN OSOKO BILKURAREN OHIKO BATZARRAK EGITEKO EGUNA DELA ETA:** 2004ko otsailaren 3an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 73/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2004ko urtarrilaren 27an hartu zuen 10. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Informazio Batzorde honek, urtarrilaren 13ko bileran, 5/04 irizpena hartu zuen, eta hemen hitzez hitz jaso da:

*“2004ko urtarrilaren 13an aurkeztutako idazkiaren berri eman da (sarrera-erregistroko zenbakia: 132/04); honakoa dio, hitzez hitz:*

“XABIER OLABARRIETA ARNAIZ JAUNAK, ALDERDI POPULARRAREN LEIOAKO UDALEKO UDAL TALDEAREN ORDEZKARIAK, honako proposamena aurkeztu du:

#### PROPOSAMENA

*Osoko Bilkurak ekainaren 25ean egin zuen aparteko bileran, osoko bilkuraren ohiko bilerak, agintaldi honetan, hilero egingo zirela erabaki zen, normalean hil bakoitzaren ostegunean, hain zuzen ere.*

*Gauza da orain arte egin diren ohiko bileretatik, bat ere ez dela egin aurretiaz ezarritako egunean - hau da, hileko lehenengo ostegunean-, beraz egiteko astea aldatu baita (aurreko agintaldi guztian ere (1999-2003) gertatu zen moduan).*

*Alderdi Popularrekook osoko bilkuraren ohiko bilerak hilaren azken ostegunean egiteko erabakia hartzea proposatu nahi dugu, honako alderdi hauek kontuan hartuta:*

*- Orain arte osoko bilkuraren ohiko bilerak (bai agintaldi honetan bai aurreko agintaldian) batez ere hilaren azken asteetan egin dira. Beraz, udal funtzionamenduaren dinamika egokituta dago osoko bilkurak hilaren amaieran egitearekin, eta ez hilaren hasieran.*

*- Osoko bilkuraren ohiko bilerak egiteko eguna etengabe aldatzeak eragozpenak dakartza, udalbatzako kideak bileretara joatea bermatzeari dagokionez.*

*Era berean, udal talde honek uste du batzarrak 19:30ean edo 20:00etan hasi beharrean (orain arte egin den bezala), komenigarria litzatekeela 19:00etara aurreratzea.*

*Batzarrak hasteko ordua aurreratuz, bilerak ez lirateke gauez amaituko, behin baino gehiagotan geratatu den moduan.*

*Hori guztia dela eta, Alderdi Popularraren udal taldeak jarraian azalduko den erabakia hartzea proposatu du, 2003ko ekainaren 25eko osoko bileran onetsitakoa aldatzeko*

#### ERABAKIA

*“Ohiko bilerak hilero egingo dira, normalean hil bakoitzaren azken ostegunean egingo ditugu – jaieguna ez bada behintzat- iluntzeko zazpietatik aurrera; ondore horretarako abuztua baliogabea izango da, bai osoko bilkuraren bilerak egiteko bai eta kide anitzeko Udal organoen bilerak egiteko”*



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

*Zenbait pertsonak hitz egin dute. Alde batetik esan da Alkatetzak jakinarazteko bide sendoa duela udal talde guztietako ordezkariekin, osoko bilkurak egiteko egun eta ordua zehazteko, udalbatzako kide guztiak bertara etorri ahal izan daitezen. Bestetik, gaur egungo araua aldatu behar dela azpimarratu da, egin ohi denari egokitzeko, hau da, osoko bilkuraren ohiko batzarrak hil bakoitzaren azken ostegunean egiteko.*

*Barne Araubideko Informazio Batzordeak gaia mahai gainean ixtea erabaki du, ondoren aztertzeko.”*

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak**, gaia eztabaidatu ondoren, aldeko irizpena eman dio jarraian azalduko den erabakia osoko bilkurari bihurtzeko, honako gai hori dagokionez:

*“Ohiko bilerak hilero egingo dira, normalean hil bakoitzaren azken ostegunean egingo ditugu, betiere, beharrezkoa delako, Alkatetza-Udalburutzak bilerarako deia beste egunen baterako egiten ez badu, iluntzeko zazpi eta erdietatik aurrera; ondore horretarako abuztua baliogabea izango da, bai osoko bilkuraren bilerak egiteko bai eta kide anitzeko Udal organoen bilerak egiteko*

## EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran aztertzeko **dekretua eman du**. Hala ere, zehaztu egin beharko da bilerak 20:00etan hasiko direla.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, poztu egin dira egin zuten proposamena onartu delako; proposamen hori osoko bilkurak egiteko eguna aldatzeko zen, horiek benetan egiten ziren egunetara hurbiltzeko asmo.

Era berean, ahal den neurrian, gaur onetsi den hori betetzen saiatzea eskatu dute, hau da, osoko bilkuraren ohiko bilerak sistematikoki egin daitezela edo horretan saiatzea, hil bakoitzaren azken ostegunetan hain zuzen ere, udalak berak horrela hobeto funtzionatzea eragingo duelako. Osoko bilkurak egiteko orduari dagokionez, mozioan, ordua aldatzea proposatu dute, beraienez udalbatzako kide guztientzat onuragarria izan daitekeelako, baina badakite orain arte egon den ordua ere manten daitekeela.

Jarraian, bozkatu egin da eta osoko bilkurak honako erabakia hartu du:

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkuak **aho batez** onetsi du Barne Araubideko Informazio Batzordearen irizpena, bileren ordutegiari dagokiona izan ezik, berau 20:00etan ezarriz, Tokiko Gobernu Batzarraren ebazpenean adierazitakoaren arabera.

**4- 2003 EKITALDIKO UDAL AURREKONTUAREN AURREKONTUKO EMAITZA ETA DIRUZAINTZAKO GERAKINA:** 2004ko otsailaren 24an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 149/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak 2004ko otsailaren 18an hartu zuen 28. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

2003ko ekitaldiko udal aurrekontuaren emaitza eta diruzaintzako gerakina aztertu dira; hona hemen horren guztiaren laburpena:

<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>		
	<b>Eurotan</b>	<b>Eurotan</b>
Aintzatetsitako eskubide garbiak	22.970.741,15	
Aintzatetsitako betebeharrak	29.695.575,35	
Ordaindu gabeko betebeharren saldoa gutxitzea	0,00,	
Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea	323.977,54	
Aurrekontuaren emaitza arrunta		- 6.724.834,20
Aurrekontuaren emaitza itxiak		- 323.977,54
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>		<b>- 7.048.811,74</b>
Finantzazioko desbideraketa positiboak		891.473,36
Finantzazioko desbideraketa negatiboak		0,00
Diruzaintzako gerakinekin finantzatzeko gastuak		8.694.586,30
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>		<b>754.301,20</b>

<b>DIRUZAINZAKO GERAKINEN EMAITZA</b>		
	<b>Eurotan</b>	<b>Eurotan</b>
<b>Ekitaldi bukaeran kobratu gabeko zordunak</b>		<b>3.157.227,55</b>
a) Aurrekontu arrunta	2.260.316,98	
b) Aurrekontu itxia	2.383.482,92	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak	219.990,76	
d) Zalantzako kobrantzako zordunak	1.706.563,11	
e) Aplikatu gabeko sarrerak	0,00	
<b>Ekitaldi bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak</b>		<b>2.291.149,76</b>
a) Aurrekontu arrunta	591.745,58	
b) Aurrekontu itxia	0,00	
c) Aurrekontuko eragiketetatik kanpoko hartzekodunak	1.699.404,18	
d) Sarrerak itzultzeko hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
<b>Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak</b>		<b>4.212.825,36</b>
a) Ekitaldi bukaeran kutxan dagoena	4.212.825,36	
b) Diruzaintzako soberakinak	0,00	
<b>Diruzaintzako gerakina guztira</b>		<b>5.078.913,15</b>
a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak	3.157.227,55	
b) Bukaeran ordaindu gabeko zordunak	2.291.149,76	
c) Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak	4.212.825,36	
Ukitutako diruzaintzako gerakina		1.043.168,65



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Gastu nagusien diruzaintzako gerakina		4.035.734,50
<b>Diruzaintzako gerakina guztira</b>		<b>5.078.903,15</b>

**OHARRA:** Kontuan hartu behar da diruzaintzako gerakina guztira 5.078.903,15 €koa bada ere; hurrengo ekitaldian zenbait gastu egiteko konpromisoa hartu dela jada, 4.369.234,62 € gastua egiteko konpromisoa hain zuzen ere; horrenbestez erabil daitekeen diruzaintzako gerakina 709.668,53 €koa da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

**Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak** egoki iritzi du ondokoa:

- 1 Batzorde honi aurkeztu zaizkion aurrekontuaren emaitzaren eta diruzaintzako gerakinaren jakitun geratzea.
- 2 Alkate-Udalburutzak emaitza horiek onetsi dituela jakintzat ematea.
- 3 Udal honetako osoko bilkurari emaitza onetsi dela jakinaraztea.

### **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran horren berri eman beharko da; horixe xedatu baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikuluan.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkura alkate-udalburutzaren dekretuaren jakitun geratu da, bertan deskribatutakoaren arabera.

**5.- 2003 EKITALDIKO SOINU ATADIA FUNDAZIO PUBLIKOAREN AURREKONTUAREN AURREKONTUKO EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO GERAKINA:** 2004ko otsailaren 24an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 150/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak 2004ko otsailaren 18an hartu zuen 29. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

2003ko ekitaldiko Soinu-Atadia fundazio publikoko aurrekontuaren emaitza eta diruzaintzako gerakina aztertu dira; hona hemen horren guztiaren laburpena:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

### AURREKONTUAREN EMAITZA

	Eurotan	Eurotan
Aintzatetsitako eskubide garbiak	1.311.638,65	
Aintzatetsitako betebeharrak	1.325.332,61	
Ordaindu gabeko betebeharren saldoa gutxitzea	0,00	
Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea	0,00	
Aurrekontuaren emaitza arrunta		- 13.693,96
Aurrekontuaren emaitza itxiak		0,00
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>		<b>- 13.693,96</b>
Diruzaintzako gerakinekin finantzatutako gastuak	36.261,27	
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>		<b>22.567,31</b>

### DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA

	Eurotan	Eurotan
<b>Ekitaldi bukaeran kobratu gabeko zordunak</b>		<b>81.506,42</b>
a) Aurrekontu arrunta	71.214,05	
b) Aurrekontu itxia	6.733,23	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak	9.795,46	
d) Zalantza kobratu gabeko zordunak	6.236,32	
e) Aplikatu gabeko sarrerak	0,00	
<b>Ekitaldi bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak</b>		<b>82.655,30</b>
a) Aurrekontu arrunta	51.441,10	
b) Aurrekontu itxia	557,96	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketetatik hartzekodunak	30.656,24	
d) Sarrerak itzultzeko hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
<b>Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak</b>		<b>23.099,69</b>
a) Ekitaldi bukaeran kutxan dagoena	23.099,69	
b) Diruzaintzako soberakinak	0,00	
<b>Diruzaintzako gerakina guztira</b>		<b>21.950,81</b>
a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak	81.506,42	
b) Bukaeran ordaindu gabeko zordunak	82.655,30	
c) Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak	23.099,69	
<b>Ukitutako diruzaintzako gerakina</b>		<b>0,00</b>
<b>Gastu nagusien diruzaintzako gerakina</b>		<b>21.950,81</b>

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

**Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak** egoki iritzi du ondokoa:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

- 1 Batzorde honi aurkeztu zaizkion aurrekontuaren emaitzaren eta diruzaintzako gerakinaren jakitun geratzea.
- 2 Alkate-Udalburutzak emaitza horiek onetsi dituela jakintzat ematea.
- 3 Udal honetako osoko bilkurari emaitza onetsi dela jakinaraztea.

### EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran horren berri eman beharko da; horixe xedatu baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikuluan.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkura alkate-udalburutzaren dekretuaren jakitun geratu da, bertan deskribatutakoaren arabera.

### **6.- 2003ko EKITALDIKO EUSKARAREN ERAKUNDEA ERAKUNDE AUTONOMIADUNAREN AURREKONTUAREN AURREKONTUKO EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO GERAKINA:**

2004ko otsailaren 24an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkate-udalburutzaren 151/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak 2004ko otsailaren 18an hartu zuen 30. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

2003ko ekitaldiko Euskararen Erakundea Erakunde Autonomiadunaren aurrekontuaren emaitza eta diruzaintzako gerakina aztertu dira; hona hemen horren guztiaren laburpena:

AURREKONTUAREN EMAITZA		
	Eurotan	Eurotan
Aintzatetsitako eskubide garbiak	848.350,50	
Aintzatetsitako betebeharrak	805.559,08	
Ordaindu gabeko betebeharraren saldoa gutxitzea	0,00	
Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea	0,00	
Aurrekontuaren emaitza arrunta		42.791,42
Aurrekontuaren emaitza itxiak		0,00
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>		<b>42.791,42</b>
Diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako gastuak		23.000,00
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>		<b>65.791,42</b>



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

### DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA

	Eurotan	Eurotan
<b>Ekitaldi bukaeran kobratu gabeko zordunak</b>		<b>3.900,36</b>
a) Aurrekontu arrunta	1.421,19	
b) Aurrekontu itxia	0,00	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak	2.479,17	
d) Zalantzazko kobrantzako zordunak	0,00	
e) Aplikatu gabeko sarrerak	0,00	
<b>Ekitaldi bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak</b>		<b>69.202,74</b>
a) Aurrekontu arrunta	44.443,97	
b) Aurrekontu itxia	22,00	
c) Aurrekontuko eragiketetatik kanpoko hartzekodunak	24.736,77	
d) Sarrerak itzultzeko hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
<b>Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak</b>		<b>223.406,82</b>
a) Ekitaldi bukaeran kutxan dagoena	223.406,82	
b) Diruzaintzako soberakinak	0,00	
<b>Diruzaintzako gerakina guztira</b>		<b>158.104,44</b>
a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak	3.900,36	
b) Bukaeran ordaindu gabeko zordunak	69.202,74	
c) Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak	223.406,82	
<b>Ukitutako diruzaintzako gerakina</b>		<b>0,00</b>
<b>Gastu nagusien diruzaintzako gerakina</b>		<b>158.104,44</b>

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

#### Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak egoki iritzi du ondokoa:

- 1 Batzorde honi aurkeztu zaizkion aurrekontuaren emaitzaren eta diruzaintzako gerakinaren jakitun geratzea.
- 2 Alkate-Udalburutzak emaitza horiek onetsi dituela jakintzat ematea.
- 3 Udal honetako osoko bilkurari emaitza onetsi dela jakinaraztea.

#### EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Udalaren osoko bilkurari egingo duen hurrengo bileran horren berri eman beharko da; horixe xedatu baita Bizkaiko



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikuluan.

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkura alkatetza-udalburutzaren dekretuaren jakitun geratu da, bertan deskribatutakoaren arabera.

**7.- LEIOAKO UDALA EUROPAKO HIRIEN IRAUNKORTASUNERAKO GUTUNARI ATXIKITZEA (AALBORG-EKO GUTUNA):** 2004ko otsailaren 24an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 143/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2004ko otsailaren 18an hartu zuen 25. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Alkatetza-Udalburutzak "AALBORG-EKO GUTUNA" izeneko agiria bidali dio batzorde honi, 1994ko maiatzaren 27an Aalborg-en (Danimarka) egindako hiri iraunkorrei buruzko Europako Konferentzian parte hartu zutenek onetsi bezala.

Udala aipatutako agiriri atxikitzea proposatu da. Agiri horren kopia bana eman zaie bertaratutako mahaikideei eta udalaren osoko bilkurak esandako proposamenari buruzko erabakia hartu beharko du.

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak** egoki iritzi dio gaia udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeari.

## EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK, ondorioz, gai hori udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran aztertzeko **dekretua eman du**.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,** honakoa adierazi du:

7. eta 8. puntuak batera eztabaidatzea proposatu du, beraien artean lotuta daudelako, nahiz eta gero bereizita bozkatu ahal izango diren.

**Eako Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, horrelako proposamenetan Tokiko Agenda 21 abiarazteko aurretiko urratsak eman dira, Europako hiriak mantentzeko eta iraunkortasunaren konpromiso orokorra islatuz.

**PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak** honakoa adierazi du:

Beren ustez garrantzi berezia du Aalborgeko gutunari eta iraunkortasunaren konpromiso orokorrari atxikitzeak, batez ere aldaketa ideologikoa dakartelako. Geure espezieak eta gainerakoek bizirik irauten jarraitzeko ingurunea mantentzeko gai izateko konpromisoa hartzearekin bakarrik, bizitzeko modua aldatzeko konpromisoa ere hartu behar da; hau da, norberak nahi beste eta nahi duenean gastatu eta kontsumitzeko asmoak ez du inolako zentzurik



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

nolabaiteko bizi-kalitatea izan nahi bada eta agiri bi horiek, batez ere Aalborgeko Gutunak, hori nabarmendu nahi dute.

Horren harian adierazi zuen ingurumena iraunkorrazten ez bada, baliabideei berriro sortzeko astia ematen ez bazaie, gutxiago kontsumitzen ez bada ondoren hobeto kontsumitzeko eta, batez ere, ezinbestekoa dena mundu guztiak kontsumitzen ez badu, hau da, pobreziaekin amaitzen dugu ala ingurumenak gainbehera egiten jarraituko du; izan ere ez du ezertarako balio batzuek iraunarazteko jokabideak izateak beste batzuek ezer ez badute eta bizirauteko naturarekiko izan dezaketen jokabide bakarra harrapaketa, etengabeko suntsiketa eta zarrastelkeria bada.

Gauzak horrela, sozialistontzat, konpromiso horiei buruz hitz egitea atsegina da, azken ehun urte baino gehiagoko pentsamendu sozialistaren (edo batzuetan sozialdemokrataren) zati handi bat biltzen dutelako, hau da, guztiok ondo bizitzea, panorama hondatu gabe mantentzea eta, batez ere, pobreziaekin amaitzea.

Aalborgeko Gutunaren hirugarren zatia Tokiko Agenda 21eko tokiko ekimenetan parte hartzeari buruzkoa da. Horren inguruan adierazi du, udal aurrekontua aztertu zen osoko bilkuran adierazi zuten moduan, Tokiko Agenda 21erako emakida urria dela uste dutela; gainera, aurkeztu dituzten agiriak onesteaz gain, udalak baliabide nahikoak eman beharko lituzke Tokiko Agenda 21 abiarazteko; izan ere, bertan proposatutako planek, azterketatik hasi eta ekintza zehatzak abiarazi arte, diru asko eskatuko dute.

Bukatzeke adierazi du herritar guztiak ingurumenarekiko jokabidea aldatzea dela. Beren buruekin, gizakiekin eta planeta honetan bizi diren gainerakoekin hartutako konpromiso gisa baino ez da ulertu behar.

#### **PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak honakoa adierazi du:**

Pozik dago Alderdi Sozialistako bozeramailearekin bat datorrelako; izan ere, bere ustez oso garrantzitsua da Leioa horrelako konpromisoak sinatzen dutenen artean egotea, bai Aalborgeko Gutuna, bai Euskal Herriko iraunkortasun konpromisoa, bai epe labur eta ertainerako aurreikusita dauden bestelako jarduerak; horrela Leioa jarduera iraunkorren nolabaiteko sarearen barruan dauden Euskal Herriko udallerrien artean egongo da. Era berean, pozik dago inoiz ezin izan duelako ulertu zergatik behar izan den hainbeste denbora bertan sartzeko; izan ere, beste udalerrri batzuk nahiko txarrago dabilta, eta beren ingurumen-jarduerak ere eztabaidagarriak izan litezke baina, hala ere, aipatutako konpromisoak sinatu dituzte. Beraz, uste du Leioak aukera handiak dituela garapen nahiko orekatu eta iraunkorra egiteko, ingurumen arazo larriak dituztenek, logikoa den moduan, askoz zailtasun handiagoak dituztela kontuan izanda eta, Leioa, zorionez, ez dago egoera horretan.

Hala ere, alderdi guztietarako egin nahi duen autokritika egin du: Aalborgeko Gutuna edo iraunkortasun konpromisoa eta ingurumena zaintzeko zein gure gizartearen garapen orekatua lortzeko literatura garrantzitsu hori guztia, konpromisoak dira baina, gero, jarduera argiak egin behar dira; ez da orokortasunean geratu behar. Azpimarratu du kasu zehatz konplexuren bat iristean, polemikoak izan daitezkeen jarduerak iristean, orduan egin behar dutela guztiak ahalegina, irizpide horiek indarrez, erabakitaz eta energiarekin aplikatzeko; hala bada, arestian aipatu duen bezala, oso konpromiso serioak dira eta konpromiso horiekin jarraitu nahi baldin bada, etorkizunean, kasu batzuetan, behar bada erraz edo merkeena ez diren irizpideak hartu beharko dira; baina, hala ere, irizpide horiek egokienak, garrantzitsuenak eta azpimarragarrienak izango dira ingurumenari begira. Adierazi duenez beti izan da izen handi arranditsuak dituzten paper handien beldur; izan ere, batzuetan herritarrei ez diete erakusten garrantzitsuena, konpromiso horiek sinatzeaz gain, horrek dakarrena dela, hau da, guztiok, administrazioak, oposizioak eta gobernuek batzuetan jokabidea aldatu behar izatea, ingurumenari benetan eragiten dieten gatazkak sortzen direnean eta, horrela, irtenbideak bilatzea.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Amaitzeko adierazi du konpromiso hau oso positiboa izan daitekeela, baina horretarako begi kritikoa izan behar dela hitzartutakoa betetzeko zailtasuna ezkututzen duten hitzekin; izan ere, garrantzitsua da datozen urteetan ahalegina guztiok egitea.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,** honakoa adierazi du:

Azaldu duenez, hain zuzen ere, hemen dagoen gairik garrantzitsuena agiriak sinatzearekin batera datozen konpromisoak dira. Guztiek nahi dute Leioa hiria hazteko eredia hazkuntza iraunkorraren eta ingurumena errespetatzearen bide positiboetatik egitea; horrela bada, Leioak izan duen hazkuntza eta azken urteetako antolamendua ildo horretan egin da nahiz eta, bistan denez, artean asko dago ikasi eta hobetzeko.

Aurrekontuko gordailua dela eta, udal aurrekontua onetsi zen osoko bilkuran ere esan zuen Tokiko Agenda 21erako gordailutako partida partida irekia dela; hori dela eta, ez dago inolako eragozpenik hori handitzeko eta hurrenez hurren fase ezberdinei ekiteko beharrezko babes ekonomikoa eransteke.

Jarraian, bozkatu egin da eta osoko bilkurak honako erabakia hartu du:

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, "Iraunkortasunerako Europako Hirien Gutuna" (Aalborgeko Gutuna) agiriari atxikitzea erabaki du. Agiri hori Aalborgen (Danimarka) sinatu zen 1994ko maiatzaren 27an.

**8.- LEIOAKO UDALA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JASANGARRITASUNERAKO KONPROMISOARI ATXIKITZEA:** 2004ko otsailaren 24an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 144/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2004ko otsailaren 18an hartu zuen 26. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Alkatetza-Udalburutzak *"EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JASANGARRITASUNERAKO KONPROMISOA"* izeneko agiria bidali dio batzar honi; hori 2001eko urtarrilaren 22an onetsi zen Bilbon.

Udala aipatutako agiriari atxikitzea proposatu da; era berean, agiriaren kopa eman zaie bertaratu diren batzordekideei, eta proposamena udalaren osoko bilkurak aztertu beharko du.

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak** egoki iritzi dio gaia udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeari.

#### **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran aztertzeko **dekretua eman du**.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, "Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasunerako Konpromisoa" izeneko agiriari atxikitzea erabaki du. Agiri hori Bilbon onetsi zen 2001eko urtarrilaren 22an.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

**9.- LEIOAKO UDALAK 24 C- UDONDOKO BULEVAR ESPARRUA BERRIRO ZATITZEKO PROIEKTUAN DITUEN ERAIKUNTZA ESKUBIDEAK ENKANTEAN JARTZEA ARAUTZEN DUEN BALDINTZEN PLEGUA.**

2004ko otsailaren 3an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bilera onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 57/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak 2004ko urtarrilaren 28ean hartu zuen 16. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Leioako Udalak HOPOko 24 C- Udondoko Bulevar esparrua berriro zatitzeko proiektuan duen hirigintzako aprobetxamendua, enkantearen bidez, besterentzea arautzen duen baldintzen pleguaren edukiaren berri eman da, udalaren zerbitzu teknikoaren bidez.

Zehatz esateko, enkantean jar daitekeen aprobetxamenduak honako inguruabarrak ditu:

- C-1 blokea osorik eraikitze eskubidea, urbanizazio-kosturik gabe; hona hemen erabilerak, (kopuruak gutxi gorabeherakoak dira):

Kontzeptua	M2E	Aprobetxamendu unitateak
Merkatuko prezio askea duen etxebizitzako erabilera (51 etxebizitza gehienez)	4.928,29	4.928,29
Merkataritzako lokaleko erabilera	303	303
<b>Guztira</b>	<b>5.231,29</b>	<b>5.231,29</b>

- Urbanizazio-kostuen %0,751 jasotzeko eskubidea.

Gutxieneko enkante oinarria 5.000.000,00 eurokoa da (BEZ ez barne), eta, merkatuak finantzaziorako eskaintzen dituen baldintza arruntak kontuan hartuta, prezioaren %20 ordainduko da hasieran (eskritura publikoa Notarioaren aurrean gauzatzea), eta gainerako %80, (abalaren bidez), ondorengo inguruabarretako bat betetzen den unetik hasi eta 15 laneguneko epean, gehienez: (hauetariko lehenengoa, denboran)

- Lurrak berriro zatitzeko proiektua Jabetza Erregistroan erregistratzea.
- Obra-lizentzia eskabidea.

**Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak** hurrengo jardura hauek egokiak direla adierazi du bere irizpenean:

- Jakinaren ganean geratzea eta udalaren osoko bilkurak onesteko udal Bulego Teknikoak idatzi duen baldintzen pleguaren edukiaren arabera, adjudikazio espedientea hasia iragarkiak BAOn eta egunkarian argitaratzearen bidez.
- Bizkaiko Foru Aldundiari baimena eskatzea espedientea onesteko, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onetsitako Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudiaren 109.1 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, eta Eusko Legebiltzarraren Autonomia-Elkarrekin Osorako Erakundeen eta Bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a).7 artikuluaekin bat etorrira.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Bozketan IU/EBko ordezkariaren aurkako botoa izan da; eta irizpen hori onartu egin da, egokiagotzat hartzen delako Udalak obrak zuzenean burutzea, eskubideak enkantean jarri ordez.

## EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK irizpen hori onesteko **dekretua eman du**. Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean gai hau eztabaidatu beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiaren beharrezko baimena eskuratutakoan. Hori guztia Tokiko Erakundearen Ondasunen Araudiaren 109.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitazio oinarriaren balioak Udalaren aurrekontuaren ohiko baliabideen %25 gainditzen baitu.

### **IU-EBko Iñaki Gomendiurrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Horren aurka dago, orain arte erakutsi duten moduan, ekintza horietakoren batean ere ezin dutelako lan egin. Uste dute ez direla enkantean jarri behar eraikuntza eskubide horiek, Udalak erabili beharko lituzkeela eskubideok; izan ere, euren ustez, dagoeneko edukiz betetzen hasi behar da etxebizitzaren politika udalerrri honetan. Hori dela eta, askoz gehiago gustatuko litzaieke Udalak berak gai hau sustatuko balu eta gai honetan etekina ateratzera mugatuko ez balitz.

### **PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak** honakoa adierazi du:

IU-EBko ordezkariak, Iñaki Gomendiurrutia jaunak, azaldu duenaren ildotik, gustatuko zitzaiekeen aukera galdu ez balitz, etxebizitzaren gaian zerbait egin ahal izateko, hainbat alditan erreklamatu duten moduan. Ondorioz, iruditzen zaie enkantean jarri ordez, hobe izango zatekeela alokairuzko udal etxebizitzetarako bideak bilatzea.

### **EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak** honakoa adierazi du:

Bere ustez hemen kasu nahiko adierazgarri bat dute aurrean, norberaren ardura gobernuan jardutea denean, hartu behar izaten diren erabaki batzuk, askoz be zailagoak direlako hartzea gobernutik, gobernutik kanpo baino. Beste alde batetik, adierazi du ezin duela ontzat eman esatea Leioako herriak ez daukala etxebizitza publikoari buruzko plangintza bat. Izan ere, berak uste du azkeneko batzordeetan argi geratzen ari dela hori, eta argiago geratuko dela, etxebizitza publiko gehiago martxan jarriko baitira.

Horren gainean azaldu du modu desberdinak daudela egiteko, Leioan, egia esan, zorionez bat dagoela, azken finean, plan partzialetan etxebizitza publikoak egiteko aukerak badaudela. Hainbatetan Leioako Udalak bere %10 hori, aprobetxamenduaren %10 hori, etxebizitza publiko horietan gastatu duela. Baina, azkenean, herri baten beharrak eta herri baten ardurak ez direla bakar-bakarrik etxebizitzetara mugatzen. Edozein hiritarrek badakiela etxebizitzez aparte hainbat betebeharrak eta hainbat ardura daudela. Adierazi du noski, badituztela bideak dirua lortzeko hainbat gauza egiteko eta hainbat inbertsio egiteko, baina azkenean daudenak daudela, horiek direla, eta ez direla gehiago. Orduan, berak uste du martxan jarri diren etxebizitzaren artean badakitela daudela 36 Mendibilen, 120 Udondon bertan, beste 100 Pinosolon; Lamiakon badakitela zein egingo diren; eta beste 30 laster ikusiko direla San Bartolomen, 76 gehiago laster ikusiko direla Txorierrin eta, nahiz eta oraindik Batzordera eraman ez den, oraindik bidean daudelako, ea posibilitatea dagoen benetan beste etxebizitza batzuk ere martxan ipintzeko eta badirudi baietz, Ubedenen, Askartza ondoan, 126 martxan ipintzeko bidean daudela, ziurrenik aurten aurkeztuko dela plan partziala, eta hor dagoela beste bat Larrakoetxen, beste ehunka etxebizitzena, horretan behar egiten ari direla ere bai.

Amaitzeko esan du hortik aparte, gauza jakina dela hainbat plan daudela martxan eta plan horietan gainera gehienak badaudela ados, hau da: kirol instalazio berriak, hainbat auzo



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

birgaitzeko (errehabilitatzeko) planak eta noski, horretarako dirua behar dela. Adierazi du baldin eta badaude beste bide batzuk dirua lortzeko, bera prest dagoela entzuteko baina, azkenean, hartu behar diren erabakiek logika bati eta globaltasun bati aurre egin behar dietela, alde batetik etxebizitza kontua eta beste alde batetik egin behar diren beste hainbat inbertsioen kontua, eta hori dela azkenean hiritarrak eskatzen duena, hiritarrak hainbat arazori aurre egitea eskatzen du, eta bitartekoak direnak direla eta ez direla gehiago.

**IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Babes Ofizialeko ehunka etxebizitzak BOEkoak dira baina ez publikoak, sustapen pribatukoak direlako hain zuzen eta, nolana ere, ados dago sarrera horiek beharrezkoak direla azpiegituretarako, auzoak hobetzeko, kiroldegiak, etab., finantzazio-iturri indartsuak, baina azken batean etxebizitza publikoari buruzko politika bat egin nahi dutela, aurrera begiratuko duen politika, eta etxebizitza hori ez dadila izan herriak behar dituen azpiegituren finantzazio-iturri bat. Azaldu du sustapen batzuetan ikusi dutela diru asko ipini behar dela babes ofizialeko etxebizitzak egiteko, Gobernuaren dirulaguntza dagoen arren eta gainera ez dela ezarri egituraren bati jarraitzen dion planik Leioan alokairuzko etxebizitza publikoa eskaintzeko.

Amaitzeko esan zuen etxebizitza, eskubide bat dela eta ondorioz Udalak ez duela beste azpiegitura mota bat finantzatzeko erabili behar, nahiz eta irabazia atera ez, baina horrela etxebizitzaren gaineko zerga maltzur moduko bat sortzen da, eta bere ustez, hori ez gertatzea lortu behar da.

**PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak** honakoa adierazi du:

Berak ez du esan Leioako Udalak ez duenik etxebizitza publikoari buruzko plangintza bat, eta izan ere, uste du osoko bilkuran Aurrekontua onetsi zenean, zuzenketen garaian, argi utzi zuela ez zirela horretaz ari, eta horri buruz esan duena da etxebizitza publikoa, kasu honetan alokairuzko etxebizitza publikoa, egiteko beste aukera bat galduko dela.

Halaber, adierazi du egia dela EAJ-PNVko bozeramaileak adierazitako etxebizitza kopurua eraikitzen ari direla eta eraikiko direla, baita erantzukizuna gobernuak duela ere baina erabakia inoiz ere ez dela bakarra eta erabaki hori ez duela zertan zuzena edo baliozkoa izan, erabaki ezberdinak har daitezkeelako jorratzen diren parametroen arabera.

Amaitzeko esan du gobernuak, hain zuzen, erantzukizun batzuk dituela eta oposizioak, aldiz, beste batzuk, baina ez dutela uste haiek 180 gradutan aldatu dutenik norabidea, gobernuan zeudenetik oposizioan daudenera.

Etxebizitza publikoa egiteko aukera galduko dela errepikatu du, eta benetan bitartekoak falta diren arren, Leioako herriak duen arazo nagusietako bat dela etxebizitza.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak** honakoa adierazi du:

Ildo beretik jarraitzeko, aurreko puntuetan ikusi izan dute zein den udal honen soberakina (erremanentea), 5.080 €ko soberakina dagoela. Azaldu du egon izan direla 900.000 €tik gorako soberakinak; normalean hirigintzatik ateratako bai lizentziatik bai aprobetxamenduaren %10 horietatik; eta hori ez dutela, egia esan, etxebizitzan erabili, erabili izan dutela kultur etxea egiten; edo bata edo bestea, baina biak egiteko modua ez zela egongo, hau da, dirua egon dela eta kultur etxe bat egiteko erabili izan dela. Baina aurrean 5.080 €ko soberakina dagoela ikusi dute; hori da daukatena hurrengo inbertsio guztiak egiteko. Berak uste du, benetan, hiritarrek eskatzen duten hainbat arazori aurre egiteko udal honek dirua behar duela.

Halaber, adierazi du berak ezin duela onartu, PSE-EE-PSOeko bozeramaileak, Susana González Rómulo andreak, erabaki bakarrari buruz esandakoa. Hau da, gaur puntu honetan erabaki bat hartuko da; hau da, gaur bai ekarri da hona proposamen bat eskubide batzuk enkantean ipintzeko baina beste plan partzial guztietan ez da aukera hau erabili, erabili



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

izan dena da Udalaren %10 hori etxebizitzan gastatzea. Orduan, hauxe da erabaki bat baina ez da erabaki bakarra, erabaki multzo baten erabakietako bat da. Alde honetatik, kasu honetan, ildo batetik, baina besteetan beste ildo batetik joan izan dira.

Berak uste du Udalak badaukala erantzukizun itzela, ez bakarra baina bai itzela, etxebizitza publikoak eraikitzeke; nahiz eta zalantza askoz ere gehiago dauzkan alokairuzko etxebizitzetan, izan ere, gai honetan argi dauka erantzukizuna eta benetan aurrekontu itzela daukala Eusko Jaurlaritzak, eta uste du udalek badauzkatela bideak lurra, lurzoruak Eusko Jaurlaritzaren eskuetan ipintzeko, eta hori egin izan dutela, nahiz eta askotan jaso duten erantzuna izan den lurzoruak eurak ez direla jasagarri, ekonomikoki ez dutela interesatzen.

Amaitzeko esan du bere ustez euren erantzukizuna dela etxebizitzak eraikitzea, baina berari ez diola arduratzen benetan etxebizitza publiko hori udalak eraikitzen duen edo pribatu batek egiten duen udalarekin hitzarmen bat sinatuta. Berak uste du, benetan, bideratu behar dutena eta ahalbidetu behar dutena dela Leioako pertsona batek etxebizitza bat Leioan edukitzeko eskubidea daukanez gero, etxebizitza hori egitea, norik egiten duen ez dio hainbeste ardura, arduratzen zaiona da egitea. Errepikatu du erantzukizuna bai, etxebizitzak eraikitzeke, baina ez direla zertan publikoak izan, eta alokairu kontuan, berak uste duela lagundu ahal dela baina Jaurlaritzak egin behar dituela, hori da behintzat berak legez uste duena.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,**  
honakoa adierazi du:

Azken urte hauetan eskuarki %10eko aprobetxamenduari loturiko eskubideek eurekin ekarri dute etxebizitza babestua eraikitzea, hau da, Mendibilen Gunea garatu zenean, batez besteko aprobetxamenduaren %10, herriarena den ehuneko Udalaren bitartez, BOE eraikitzea ekarri du berarekin. Adierazi du IU-EBko bozeramaileak esan duela sustapen pribatuak direla, eta hori egia dela, baina ez dela egi osoa, izan ere, BOEak izateko eta Leioako herritarrentzat izateko eragiketa Udalak ordaintzen du, ez enpresa eraikitzaileak; Mendibilen 36 etxebizitza, berdina gertatzen da Pinosolon, eta %10eko aprobetxamenduari loturiko eskubideak Guneetan Udalak gastatzen ditu BOEko 100 etxebizitzatan, sustatzaile pribatu batek eraikiko baditu ere, baina 100 etxebizitza hauei ekonomikoki eusten diena, Udala dela aprobetxamenduaren %10 horren bitartez. Berdina gertatzen da Txorierriko aprobetxamenduaren %100 horretan, hitzarmen bat egin da eta horren bidez lurzoru zati bat Udalak erosiko du eta beste zatia sustatzaile pribatuak. Lamiakon, batez besteko aprobetxamenduaren %10 ez da hartuko, ondorioz, Udalak kopuru hori eragiketa aurrera ateratzeko emango du eta 169 etxebizitza berriro bete daitezen (errealojoak).

Zentzu horretan Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeburuak esan duen bezala, bi Gune berri daude martxan ipintzeko: San Bartolomé hutsik, BOEko 30 etxebizitza daude oraindik erabaki barik baina, egia esateko, Gobernu taldeak udalbatzari proposatuko dio 30 etxebizitza horietan bataz besteko aprobetxamenduaren %10 erabiltzea BOEko etxebizitzak izan daitezen, Leioaren ahaleginarekin, ez sustatzaile pribatu baten ahaleginarekin baizik eta Leioako Udalaren ahaleginarekin eta Leioako herriaren ahaleginarekin, Leioako herritarrentzat.

Halaber adierazi du aste honetan lanean aritu direla BOEko 126 etxebizitza gehiago posible izan daitezen Ubedenen, horri buruzko informazioa oraindik eman ez bada ere. Aurreko hori Udondoko Bulevarrekoarekin lotzen da.

Udalak eskuarki %10 horrekin, Leioan etxebizitza asko eraikitzeari eusten dio finantziazioaren aldetik. Politika ona da bere ustez eta horrek bat egiten du Eusko Jaurlaritzarekin bateratu den ahaleginarekin, dagoeneko Lamiakon eraikitzen ari diren 100 etxebizitzak, Pikuetan, eta dagoeneko lizentzia eskuratu duten 55 etxebizitzak eta azken horiek bai izango dira alokairuzkoak. Horri dagokionez adierazi du Javier Madrazo jaunak esan duela Leioa puntako udalerria dela etxebizitza babestua egiterakoan herrialde mailan, eta modu



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

honetan uste du esandakoa egia dela, izan ere, ez da erraza honelako pisua daramaten udalerririk aurkitzea.

Esan beharrekoa esaten amaitzeko adierazi du Udalak etxebizitza behar duten lagunez arduratu behar duela baita etxebizitza duten arren beharbada arazoak dituztenez ere. Ildo horretatik azken urteotan Leioako herria biziberritzeko ahalegina egin da, Monte Ikea, Txorierri, Pinueta, Lamiako, La Txopera auzoetan, eta prozedura horren bidez lortuko diren bitartekoak auzo horietarako izango dira ere eta, Udal hau seguru arduratuko da etxebizitza bat behar duten lagunez etxebizitza babestuaren bitartez, baina aldi berean herritarrek etxebizitza badute ere, euren auzoek biziberritze interesgarria eta itzela behar izanez gero, horretaz ere arduratuko da Udala.

**PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak** honakoa adierazi du:

Berak ez du esan osoko bilkura honetara ekartzen den erabakia, erabaki bakarra denik, esan duena da Gobernuak erabakiak hartu behar zituela, eta berak adierazi duela ez dagoela bakarrik erabaki bakarra edo konponbide bakarra, baizik eta dibertsitate baten barruan EAJ-PNVko bozeramaileak bat erabaki duela eta berak beste bat aukeratuko zukeela.

Esan beharrekoa esaten amaitzeko adierazi du aipatu den etxebizitza kopurua benetan dela eraiki beharrekoa, eta etxebizitzaren arazoa oso arazo larria dela errepikatu du eta gai honetan egiten dena baino gehiago egin litekeela uste dutela.

Jarraian, bozkatu egin da eta osoko bilkurak honako erabakia hartu du:

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Bozketan aldeko hamabost boto izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak, PPko lau zinegotzienak eta EAKo zinegotziarena. Aurkako botoak, berriz, bi izan dira, IU-EBko bi ordezkariak. Abstentzioak lau izan dira, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak. Ondorioz, udalaren osoko bilkurak **gehiengoz erabaki du** Leioako Udalak HOPOko 24 C- Udondoko Bulevar esparrua berriro zatitzeko proiektuan duen hirigintzako aprobetxamendua, enkantearen bidez, besterentzea arautzen duen baldintzen plegua **onestea**.

**10.- ROBOTIKERek IDATZITAKO ORDENANTZAREN PROPOSAMENA, LEIOAKO UDAL MUGARTEAN SAKELAKO TELEFONO BIDEZKO KOMUNIKAZIOEN AZPIEGITURA ARAUTZEN DUENA.** 2004ko otsailaren 3an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 58/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak 2004ko urtarrilaren 28an hartu zuen 17. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzordearen aurreko bileran Robotikerek idatzitako ordenantza proposamenaren edukiaren berri eman zela adierazi da udalaren zerbitzu teknikoaren bidez. Proposamen horrek Leioako udal mugartean sakelako telefono bidezko komunikazioen azpiegitura arautzen du eta horren ale bana eman zaie talde politikoei.

Hori dela eta, espedientea abiarazteko erabakia hartu behar da, instalazio horiek arautuko dituen bitartekoa edukitzearen.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

### **Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak**

Robotikerek idatzitako eta Leioako udal mugartean sakelako telefono bidezko komunikazioen azpiegitura arautzen duen ordenantzaren edukiaren aldeko txostena ematea egokia dela adierazi du bere irizpenean. Ondoren berori igorriko zaio udalaren osoko bilkurari, hasieran onetsi dezan; hori guztia Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hasieran onetsi eta gero, ordenantza jendaurrean erakutsi eta interesdunei entzunak izateko aukera emango zaie 30 eguneko epean gutxienez, horren iragarkia BAOan argitaratu eta biharamunetik zenbatuta. Epe horretan interesdunek erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izango dituzte.

PPko ordezkariak jakinaren gainean geratu dira, besterik ez; izan ere, ordenantzaren edukia ezin izan dutela aztertu esan dute.

### **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK irizpen hori onesteko **dekretua eman du**. Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean gai hau eztabaidatu beharko du, ordenantzaren testua hasieran onestea erabaki dezaten. Ondoren, ordenantza jendaurrean erakusteko epean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, ordenantza behin betiko onetsizat hartuko litzateke; Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen Legearen 22.2.d) artikuluan eta baterakoetan xedatutakoarekin bat etorrita eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 50.3 artikulua aintzat izanda.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnáiz jaunak** honakoa adierazi du:

Bere taldearen iritziz ordenantza hau beharrezkoa da dagoeneko hain berria ez den arlo honetan, eta uste dute ordenantzak udal mugarteko telefonia mugikorrerako antena eta dorreen ekipo hauen instalazioa arautzen lagunduko duela.

Adierazi du printzipioz, ordenantzaren testua zuzena iruditzen zaiela eta, gainera, ROBOTIKER enpresaren eta Udalaren Teknikarien Lantaldearen abala du, izan ere, teknikariak ordenantza ontsat eman dute. Horri buruz adierazi du aldaketa txiki bat proposatu dutela, berori aztertzeko eta ordenantzan sartu ahal izateko, xedapen iragankorrean, lizentziarik gabeko sakelako telefono bidezko komunikazioen instalazioei loturik; B atalean ondokoa agertzen den lekuan: "Ezin izango balitz legeztatu, sektorean indarrean dagoen araudia eta ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzeagatik; instalazioari amaiera emango zaio, aurretik interesdunari entzuna izateko aukera emanez", beste hau agertzea proposatu dute: "Ezin izango balitz legeztatu, sektorean indarrean dagoen araudia eta ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzeagatik; amaiera emango zaio, aurretik interesdunari entzuna izateko aukera emanez eta dagokionean instalazioa kenduz, sorospidez". Gura dena ez da bakarrik instalazioari amaiera ematea, baizik eta ziurtatzea instalazioa ez dela geratuko amaiera emanda erabili barik, horrenbestez, instalazio hori kendu beharko litzateke.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,** honakoa adierazi du:

Inplizituki administrazioaren jardueran bertan sorospidezko burutzapena dago eta erabaki hau hasierako onespina denez, proposatu egin du akatsik ez egiteko Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordean gaia azter dezatela, eta alegazioen fasean zuzenketa egin dadila.

Jarraian, bozkatu egin da eta osoko bilkurak honako erabakia hartu du:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez** erabaki du Leioako udalerrian sakelako telefono bidezko komunikazioen azpiegitura arautzen duen ordenantza hasieran onestea, Udalaren Gobernu Batzordearen ebazpenean ezarritakoaren arabera. Halaber, aztertu egingo dira Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordean ondore horretarako egingo diren alegazio eta erreklamazioak.

**11.- BILBAO BIZKAIA KUTXAN UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA:** 2004ko otsailaren 3an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 71/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2004ko urtarrilaren 27an hartu zuen 8. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Bilbao Bizkaia Kutxako Hauteskunde Batzordeburuak idazkia bidali du (sarrera-erregistroko zk.: 244/04). Hona hemen idazki hori hitzez hitz:

*“Hilaren 8ko idazkian BBKren Batzar Nagusian udal horren ordezkari izango diren 2 kontseilari nagusi izendatzea eskatu genizuen. Horrela bada, horren jarraipen gisa, adierazi behar dizugu kontseilari titularrak eta horien ordezkoak izendatu behar dituzuela. Horretarako honekin batera onarpen-gutun osagarriak bidali dizkizugu.”*

Bozketan EAJ-PNVko ordezkariak, hau da, Guillermo Mateo Kareaga jaunak, Javier Bidea Molinillo jaunak, Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak eta Beatriz Resa Bardeci andreak batetik eta EAko Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak bestetik aldeko botoa eman dute. Ondorioz **Barne Araubideko Informazio Batzordeak** bidezkotzat jo du udalaren osoko bilkurari honakoa proposatzea: Jon Loizaga Cayero jauna, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunaren ordezkari izendatzea, eta Guillermo Mateo Kareaga jauna, Javier Bidea Molinillo jaunaren ordezkari izendatzea. Abstentzioak lau izan dira, PSE-EE-PSOeko Jose Manuel Toledo Cañamero jaun eta Susana González Rómulo andrearena eta PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaun eta Aiala Eguiluz Rodríguez andrearena.

## EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena, zehaztasun batekin: Jon Loizaga Cayero jaunari eman zitzaion izendapena, Iñaki Golikoetxea Gordo jaunarentzat izango da, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunaren ordezkari izango delarik eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran aztertzeko **dekretua eman du**, hori guztia 1986ko abenduaren 28ko Tokiko Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 38.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira.

**IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Aurkako botoa emango dute udalaren osoko bilkurak 2003ko maiatzaren 25 eta urriaren 22ko bileretan gaiaz mintzatu zenean azaldu zuten moduan; izan ere, ez zaie ondo iruditzen kargu guztiak Gobernu taldearenak izatea beti.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Bozketan abstenitu egingo dira, udalaren osoko bilkurak 2003ko maiatzaren 25 eta urriaren 22ko bileretan azaldu zuten moduan; izan ere, euren ustez ordezkarien banaketa zuzenagoa izango litzateke, oposizioko alderdiak kontuan hartu izan balira.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Bozketan aldeko hamaika boto izan dira, EAJ-PNVko hamar ordezkarietak, eta EAko zinegotziarena. Aurkako botoak, berriz, sei izan dira, IU-EBko bi ordezkarietak eta PSE-EE-PSOEko lau zinegotzietak. Abstentzioak lau izan dira, PPko lau zinegotzietak. Ondorioz, udalaren osoko bilkurak gehiengoz erabaki du BBKren Batzar Nagusirako Iñaki Goikoetxea Gordo jauna eta Guillermo Mateo Kareaga jauna, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola eta Javier Bidea Molinillo Kontseilari Titular jaunena, hurrenez hurren, ordezeko izendatzea **oneste**a.

**12.- LANPOSTUEN ZERRENDA (LPZ) BERRIRAKO PROPOSAMENA:** 2004ko otsailaren 24an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 33/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Informazio Batzorde honek 2004ko otsailaren 10eko batzarrean, 15/04 zenbakidun irizpena hartu zuen; jarraian idatzi da, hitzez hitz:

“Batzordeburuak adierazi duenez, udal langileria tokiko zerbitzuak emateari dagokionean egokitzeko helburuz, LPZ berria prestatzeko lan egin da.

*Ondore horretarako, Udal Gobernu Taldeak hasieran desiragarritzat jo daitekeen proposamena zirriboratu du. Gero, bilera bi egin dira ELA eta LAB sindikatuetak langileen ordezkarietarakin, eta horien ostean, Batzordeari aurkeztu zaio bilera horien dokumentazioa, bai eta LPZren proposamena.*

*Barne Araubideko Informazio Batzordeak bidezkotzat jo zuen gaia mahai gainean uztea, espedientea aztertzeko eta hurrengo bilkuran irizpena emateko.*

Lanpostuen Zerrendari dagokionez, Alkatetza-Udalburutzak otsailaren 2an 65/04 zenbakidun Dekretua onartu zuen. Dekretuan honakoa adierazten da:

“Udal Gobernu Batzordearen azaroaren 11ko bileran onartutako Alkatetza honen 559/03 ebazpenaren bidez, estatuko funtzionarioentzat gordetako lanpostu bete gabeetarako oinarri eta merituak onetsi ziren.

Arestian aipatutako funtzionarioei buruzko araudia aldatzen duen ekainaren 27ko 834/2003 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoaren ondorioz, meritu bereziak dagokion Toki Erakundearen Lanpostu Zerrendaren barruan sartzen dira.

*Horrenbestez, HONAKOAREN BIDEZ, otsailaren 6an egin beharreko oso bilkuran beste puntu bat sartzea ebatzi dut, honakoa erabakitzeko: Udal Gobernu Batzordearen azaroaren 11ko bileran onartutako Alkatetza honen 559/03 ebazpenaren bidez estatuko funtzionarioentzat gordetako lanpostu bete gabeetarako onetsitako meritu bereziak, eranskin gisa sartuko dira Udal honetako Lanpostuen Zerrendan.”*

Otsailaren 18ko bilkuran onartutako 28/04 irizpenaren bidez Lanpostuen Zerrenda onetsi zen. Onespen horrek barnean hartzen ditu Udal Gobernu Batzordearen azaroaren 11ko bileran onartutako Alkatetza honen 559/03 ebazpenaren bidez erabaki ziren meritu bereziak. Meritu horiek, hain zuzen ere, estatuko habilitazioa duten funtzionarioentzat gordetako lanpostu bete gabeetarako erabaki ziren.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Arlo juridikoan oinarriak jartzeko, eta Udal honetako giza baliabideak ordenatzeko egin nahi den guztiari legezko estaldura nahikoa emateko tresnarik egokiena da GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA onartzea. Izan ere, ildo horretan, komenigarria da Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 22. eta 54. bis artikuluan (azaroaren 7ko 16/1997 Legeak emandako idazkeran) xedatutakoa hemen jartzea.

«22. Artikulua. 1. Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokitu zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira, eta euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Eta hori aurrekontuen mugen barne egin beharko da, gobernu-organismoek langileei buruzko politikarako finka ditzaten jokabideen arabera.

2. Giza baliabideak arrazionalizatze programetan, enplegu-planetarako aplikagarriak diren arau orokorretan ezarritako neurri guztiak edo batzuen batzuk sar daitezke. Horretaz gain, borondatezko lan-utzialdian daudenentzat, alde aurretik jubilatu daitezenentzat, jarduneko zerbitzu-aldia uzten dutenentzat edo behin-betiko baja hartzen dutenentzat pizgarriak ere sar daitezke.

3. Lege honetan eta Administrazio Publiko bakoitzak eman dezan arautegian xedatutakoa beteko da giza baliabideak arrazionalizatze programetan.

4. Euren aplikazio-arautegi berezia beteko da enplegu planetan.

5. Giza baliabideak arrazionalizatze programak daragien langileek beste Administrazio Publiko batzuetara berraxiki daitezke. Era eta modua Administrazioen arteko hitzarmenetan ezarriko dira.

«54. Bis artikulua.

1. Giza baliabideak arrazionalizatze programaren bat aplikatu izanaren ondorioz, funtzionarioen baten lanpostua ezabatzea gertatuz gero, beste lanpostu baterako destinoa eman dakioko funtzionario horri, langileen berrizendapen-prozeduraz baliatuz.

2. Langileen ordezkariekin negoziatuko diren arrazionalizatze-programak, giza baliabideei buruzkoak, aplikatu izanaren ondorioz burutu daitezen langileen berrizendapenak gaitasun, formazio, esperientzia eta antzinasunari buruzko irizpide objektiboak kontuan hartuta egingo dira. Irizpide horiek arrazionalizatze-programetan finkatuko dira.

3. Berrizendapen bidez esleitu den lanpostuari funtzionario bat atxikitzeak behin-betiko indarra izango du.

Aurreko guztiaren ondorioz, eta egun hartan –otsailaren 24an– Udal honetako ELA eta LAB Sindikatuen ordezkariekin –hurrenez hurren, Enpresa Batzordean eta Langile Batzan daudenak– berriro aztertu ondoren, Udal Gobernu Taldeak LEIOAKO UDALAREN GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA hau onestea proposatu zuen. Programa hori Udalaren Osoko Bilkuran aurkeztu beharko da, bertan aztertzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikuluan xedatutakoaren arabera. Programan honako neurriak sartu dira:

1. Lanpostuen Zerrenda (LPZ) aldatzea, espedientean agertzen den LPZ onartzeko. Zerrenda horretan 156 lanpostu azaltzen dira, gehi behin-behineko langileen lanpostu bi; horrela, oraingo zerrendan agertzen ez diren lanpostuak amortizatuta geratuko dira.

2. Aurreko LPZrekin bat etorritik, orain arte lan kontratudun langile finkoek betetzen zizuten lanpostuak funtzionarioek bete beharreko lanpostu bihurtzea.

3. LPZ PROPOSAMENA agirian 15, 16, 42, 65, eta 77 zenbakiekin agertzen diren lanpostuetarako langileak berriro esleitzea.

4. Zerrendan agertzen diren hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak esleitzea.

5. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.g) artikuluan ezarritakoaren arabera, lan kontratudun langileen lanpostuak funtzionarioen lanpostu bihurtzen diren kasuetan, Alkatetza-Udalburutzak onetsi beharko ditu lanpostu horiek betetzeko proben oinarriak, bai eta lehentasunezkoztat jotzen diren lanpostu bete gabeen enplegu publikoko eskaintza, lanpostu horiek betetzeko beharrezana kontuan hartuta.

6. Lanpostu-mailako osagarrien maila eta LPZko zutabe egokien zenbatekoa zehaztea LEIOAKO UDALAREN LANPOSTU ZERRENDA izenburuko gai zerrendako puntua onestean mende geratuko da. Puntu hori jorratuko da honako gai hau lantzen den osoko bilkura berean.

Espedienteko dokumentazioari buruz, honako hau geratu zen agerian:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- Dedikazio edo prestasun bereziko osagarriko kopuru bat esleituta duten lanpostuen zerrendan jaso gabe geratu zen Zerbitzu Anitzeko Laguntzailearen lanpostua; horri buruz, urtean 2.521,76 €ko zenbatekoa esleitzea proposatu zen.
- Ofizial ondokoaren lanposturako balorazioa eta zereginen gida, artean aurkezteko zeuden.
- 60 zenbakidun lanpostua, "Igeltserotzako behargina-Bideak eta Obrak", desagertu da, eta horren titularra "Uren behargina" lanpostuari esleituko zaio.

IU-EBko Rubén Belandia Fradejas jaunak zalantzan jarri du "*Hornigaien erosketa eta kudeaketako arduradun*" lanpostua, izan ere, bere ustez, aurretik zegoen lanpostu baten antzerakoa da hori, administrari lanpostuaren antzerakoa hain zuzen. Beste alde batetik, bere ustez "*Kultur Zentroko Ordenantza*" lanpostu biek derrigortasun data mugaeguneratua izan beharko zuten eta, bukatzeko, Kultur Sailak langile-kopuru txikia izatea aurreikusitako zela ekipamendu berriak kontuan hartuta. PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jauna bat etorri da "*Kultur Zentroko Ordenantza*" lanpostuari buruz esandakoarekin.

EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunak Kultur Zentroko Ordenantza lanpostu bati derrigortasun data mugaeguneratua ez jartzearen inguruan adierazi du lanpostu hori langileen berrizendapenaren bidez betetzeko aukera gogoan erabili izan dela eta beharbada lanpostua beteko zuen lagunak ez zuela edukiko hizkuntza-eskakizunak eskatzen duen euskarazko jakite-maila. Beste alde batetik, gaineratu du LPZ ez dela "*foto finkoa*" eta hori dela eta, Kultur Sailaren arloan-baita beste sailetan ere-, beharrianak hala eskatuko balu, egin beharreko aldaketak egingo lirakeela.

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak**, EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jaunaren, Javier Bidea Molinillo jaunaren, Iñaki Goikoetxea Gordo jaunaren eta Bea Resa Bardeci andrearen eta EAKo Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunaren aldeko botoekin, UDALAREN GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA izenarekin Udal Gobernu Taldeak aurkeztutako proposamenaren aldeko irizpena eman zuen. Programa hori arestian transkribatu diren sei neurrien bidez garatzen da, eta neurri horien artean daude honakoak: Udal Gobernu Batzaren azaroaren 11ko bilkuran onartutako Alkatetzaren 559/03 ebazpenaren bidez, estatuko habilitazioa duten funtzionarioentzat gordetako lanpostu bete gabeetarako onesten diren meritu bereziei buruzko guztia, Zerbitzu Anitzeko lanpostuaren dedikazio bereziko osagarriari buruz sartutako zehaztapenak, eta 60 zenbakidun lanpostuari dagokion aldaketa. Bozketan abstenitu dira PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jauna eta Mercedes Angulo Ordozgoiti andrea, PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna eta Aiala Eguiluz Rodríguez andrea eta IU-EBko Rubén Belandia Fradejas jauna; horiek guztiek euren iritzia Udalaren Osoko Bilkuran emango zutela adierazi zuten.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak**, honakoa adierazi du:

Lehenengo eta behin beste zinegotziei galdetu die ea 12. eta 13. puntuak batera eztabaidatu baina banan-banan bozkatzea ondo iruditzen zaien. Zinegotzi guztiek proposamena onartu egin dute.

Jarraian adierazi du bi zehaztasun egin nahi zituela, azkeneko orduetan izandako elkarrizketen ondorioz: lehenengoa, ondore ekonomikoei dagokionez aplikazio data 2004ko urtarrilaren 1a dela agerrarazi behar da aktan, eta bigarrena, bozeramaileekin egin den azken batzarraren ondoren, egin beharreko doikuntza jorratu da, zehatzago esateko María Jesús Ortiz andreari dagokio doikuntza, Gizarte Ekintza Batzordeko Idazkaritzaren barruan; gaur egun bajaran dago langile hori. Bozeramaileekin egindako batzar horren emaitza legez, prestasuneko osagarria (1.000 €koa) ezartzea proposatu da, lanpostu hori betetzen duen pertsonak egiten



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

dituen orduak baloratuz eta, jakina, ezin denean Idazkaria izan, beste Gizarte-Laguntzaile bat egongo da bere ordeztu, eta diru-konpentsazio egokia egingo da orduan.

Laburbilduz eta ondorengo eztabaida bideratzeko, proposatu du alde batetik, ondore ekonomikoetarako data 2004ko urtarrilaren 1a izatea eta bestetik, prestasuneko osagarria ezartzea, Gizarte Ekintza Batzordeko Idazkaria den María Jesús Ortiz gizarte-laguntzaile andrearentzat.

#### **IU-EBko Rubén Beldia Fradejas jaunak** honakoa adierazi du:

Ondo eta positiboki baloratzen dute lanpostuen balorazioa baita izan dituen emaitzak ere. Oro har bi gauza aldatzeko proposamenak egin ditu: lehenengoa, lanpostuen izenek sexukutsua daukate, orduan hori ezin denez horrela onartu, horri dagozkion aldaketak egin behar dira "Secretario" hitza ez agertzeko. Euskaraz ez dago arazorik baina gaztelaniaz dagoen bezala onartezina da terminologia hori mantentzea; beraz "Secretario" hitzaren ordeztu, "Secretario/a" agertzea nahiko luke.

Bigarren proposamena Kultur Zentro berrian sortuko diren ordenantza lanpostu bien gainekoa da, izan ere, lanpostu biek ez daukate derrigortasun data jarrita, eta zerbitzu horren funtzionamenduari begira, eta euskarari eman nahi zaion lehentasunaren ikuspuntutik, bere ustez kultur etxe horretan garrantzitsua litzateke hor bertan lan egingo duten pertsona guztiek euskara maila egokia edukitzea, beraz, bigarren lanpostu horri ere derrigortasun data jartzea nahiko luke.

#### **PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Lehenengo eta behin ados dago proposatu berri diren aldaketekin. Osoko bilkura honetan berori onesteko aurkeztu den lanpostuen zerrenda berria dela eta, adierazi du bere talde politikoari oro har positiboa iruditzen zaiola lanpostuen zerrenda berri hau eta beste aldetik, beharrezkoa zela, Udalak dituen giza baliabideen antolaketa egin delako, lanpostu guztien funtzionarizazio prozesua burutuko delako, izan ere, aurretik hartutako konpromisoa zen hori eta azkenean, lanpostuen zerrenda berri hau gauzatu eta burutu ahal izango da eta, gainera, lanpostu berriak sortuko dira Udalean, bertako giza baliabideak Udal honek dituen zerbitzuen eskarira, geroz eta handiagoa den eskarira hain zuzen egokitzeko beharrezkoak baitira.

Beste alde batetik, Barne Araubideko Batzordean esandakoari jarraiki, Lanpostuen Zerrenda hau ez dela agiri itxi bat, abiapuntua baizik eta horregatik bere taldekoek positibo ikusten dutela berori onestea eta horregatik zerrendaren aldeko botoa emango dutela, baina egia dela ere agiri irekia denez geroari begira adi egongo direla, lanpostuen zerrenda Udalean sor litezkeen beharizan berrietara egokitzen joan dadin. Adierazi du Kultur Zentroaz ari dela; LPZk lanpostu batzuk ezarri ditu Kultur Zentrorako eta espero du lanpostuok zentro berrian sortuko diren beharizanak betetzea baina, nolana ere, adi egon beharko da horrela izan dadin eta lanpostu berriak sortu behar ez izatera.

Beste alde batetik, azaldu du LPZn, Kultur Zentroaren atalean hain zuzen, izendapen askeko figura bat sartu dela, Zentroko zuzendaria, Kultur Saileko zuzendaria. Izendapen hori azaldu diren arrazoiak direla eta, Kultur Zentroaren barruan figura garrantzitsua izan behar duela eta Zentroaren proiektuari bizitasuna eman behar diola uler dezakete.

Espero dute Gobernu Taldearen aldetik eta guztien artean zuzendaritza lan hori betetzeko eta Zentro Kulturaleko beharizanei erantzuteko pertsona aproposena bilatzea. Zentzu horretan Lanpostuen Zerrendaren aldeko botoa emango dutela aurreratu dute.

Osoko bilkura honetan ere aurkeztu den eta ICSA enpresak egin duen balorazioari dagokionez, azaldu du bere ustez balorazio prozesua ondo amaitu dela langile taldearentzat, nahiz eta badakien eta jakitun den balorazioaren alderdi jakin batzuk hobetu egin zitezkeela eta hobetu egin daitezkeela eta, uste du oro har balorazioa positiboa dela Udaleko langile taldearentzat, euren ordainsarien egokitzapena delako eta badaki langileek erreklamazio nahiko



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

egin dituztela balorazioaren inguruan baina pentsatzen du azken batean egindako balorazioa positiboa dela langile taldearentzat. Horregatik guztiagatik bere taldeak aldeko boto emango dio ere balorazio horri, bere ustez osoko bilkura honetan hartuko diren erabaki bi hauek Udalaren funtzionamenduaren onerako izango dira.

**PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak** honakoa adierazi du:

Iragarri du bi bozketetan aldeko botoa emango dutela, baina lanpostuen balorazioaren kasuan uste dute gutxi dagoela esateko, enpresa aditu batek egindako balorazio teknikoa delako. Ematen du ez dela irizpide politikorik jarraitu baizik eta irizpide teknikoak eta hori dela eta, ez dago ezer esaterik.

Lanpostuen zerrendari loturik, horren aldeko botoa emango dutela iragarri dute, eta lehenengo eta behin, adierazi du pozten direla azkenean onetsi ahal izatea, Udalak baliabideak arrazionalizatzeko beste bitarteko bat izan dezan horrela. Ondoren adierazi du alderdi batzuk eurek ezberdin egingo zituztela, baina uste du ere gaur proposatzen den LPZ dinamikoa izango dela eta auresuposatzen du zerrenda Udalak berak izango dituen baldintza eta beharizan berrietara egokitzen joango dela.

Aukera aprobetxatu nahi du esateko eurek uste eta espero zutela Gizarte Zerbitzuen Sailari buruzko erabakiren bat hartzea, lanpostuen zerrendaz ari da, ez balorazioaz. Izan ere, eurek denbora luzea daramate Leioako gizarte zerbitzuen gerentzia erreklamatzeko edo horren beharra ikusten; hori dela eta, bilera hau horretarako aukera ona izan zitekeela uste zuten baina uste eta espero du hemendik aurrera ere horretaz hitz egin ahal izango dutela eta ez dute hauxe erabiliko ezetz esateko.

Amaitzeko esan du, eurak ere pozik daudela besteen moduen, azken orduan Gizarte Zerbitzu Batzordeko idazkaritzari buruz egin den proposamenarekin, logikoa delakoa, gainerako idazkaritzekin egin denarekin bat etorrira.

Alkate-Udalburu jaunak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak**, honakoa adierazi du:

Azaldu du honek guztiak egokitzapen etengabea behar duela, bai lanpostuen zerrenda bat bai balorazio bat eta ez da gauza erreza. Uste du nahikoa aurreratu dela eta egindakoarekin pozik dago nahiz eta zerbait hobetzeko badagoela beti aitortzen duen.

Ezker Batuak egin dituen proposamenen gainean, lanpostuen izendapenetan sexuaren arabera ez diskriminatzea dela eta, ekarpen ona dela azaldu du eta onartu egingo du. Atezainen hizkuntza-eskakizunei dagokienez, logika badu, izan ere, malgutasun apur bat bilatu da beste pertsona batzuekin egin litezkeen egokitzapen eta berrizendapenei dagokienez, baina uste du proposatutakoak logika handia daukala eta, gainera, Kultur Zentro hau denon artean egiteko aukeran uste osoa du, horrenbestez proposamenak onartu egingo ditu.

Alderdi Popularrak Kultur Etxeari buruz egin dituen oharrei dagokienez, azaldu du abiapuntu eskema neurtuta dagoela eta giza baliabide gehiago behar diren aztertzen joan beharko dela. Bere ustez, hasteko zurrak izan behar dute, beharizanak ikusten joango badira ere. Kultur Etxeko zuzendaritzari dagokionez, bere ustez kargu horrek ezaugarri oso bereziak ditu eta uste du zentroko buruak erantzukizun handia duela, lana ondo egin ezean zentroak ezin duelako funtzionatu; jarduera horrek berebiziko bizitasuna eskatzen du.

PSO-EE-PSOeko bozeramaileak, Susana González Rómulo andreak, egin dituen oharrei dagokienez, azaldu du aurrekontuen eztabaidan dagoeneko esan zela, giza baliabideak sendotzen egindako ahaleginari loturik eta egokitzapen etengabea burutu beharko dela.

Amaitzeko eskerrak eman dizkie Langileen Batzarrari eta Batzordeari eskainitako laguntzarengatik, eskabide guztiak jorratu ez direla dakien arren; izan ere, guztiak jorratuko ez zirela aurreikusteko modukoa zen, uste duelako egon diren eta oraindik dauden desadostasunekin halabeharrezkoa eta naturala dela hori, baina bere ustez denek lan egin dute



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

honetan, horrenbestez honetan lan egin duten guztien izenean eta udalbatzaren izenean eskerrak eman nahi dizkie Langileen Batzarrari eta Batzordeari, sindikatuen ordezkari, euren laguntzarengatik.

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, Osoko Bilkuran eta **aho batez**, Leioako Udalaren giza baliabideak arrazionalizatzeko Programaren barruan Udal Gobernu Taldeak proposaturiko neurriak onestea erabaki du, Barne Araubideko Batzordearen irizpenean jasota dagoen bezala. Horrenbestez, Lanpostuen Zerrendaren (LPZ) aldaketa ere onetsiko da, eta eranskin bat sartuko da Alkatetzaren 559/03 ebazpenaren bidez estatuko habilitazioa duten funtzionarioentzat gordetako lanpostu bete gabeetarako onesten diren meritu bereziei buruz.

Halaber, Udalbatzak, **aho batez**, honako zuzenketak onestea erabaki zuen:

- LPZko 96. lanpostuari urtean 1000 € esleitzea, dedikazio edo prestasun bereziko berriazko osagarriaren kontzeptuan.
- LPZko lanpostuen izendapenetan generoen diskriminazioa eragiten duten terminoak kentzea.
- LPZko 109 eta 110. lanpostuei aplikatzea esleitutako hizkuntza eskakizunaren baldintza berbera, hau da, "derrigortasun data mugaeguneratua".
- LPZko 127. Lanpostuari (Ofizial Ondokoa) dagozkion zeregin eta balorazioak onestea.

**13.- LANPOSTUEN BALORAZIOA:** 2004ko otsailaren 24an Barne Araubideko Informazio Batzordeak egindako bileran hartu zen 40/2004 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

2004ko otsailaren 10ean egindako batzarrean, udaleko lanpostuen balorazioari dagokionez, 14/04 zenbakiko irizpena hartu zen; honakoa dio, hitzez hitz:

*"Batzordeko kideei Alkatetzaren 949/03 eta 75/04 dekretuen kopia eman zaizkie; horien arabera, hurrenez hurren, lanpostuen balorazioaren behin-behineko onespena eta udaleko langileen erreklamazioak aztertzen dira, MANAGEMENT ICSAk aurkeztutako proposamenei oniritzia emanez. Hori guztia tramite ekintzen izaeraz egin da, prozedura sustatzeko; izan ere, udalaren osoko bilkurak du behin betiko onesteko eskumena. Era berean, azken koadroak ere eman zaizkie; horietan, lanpostu bakoitzerako balorazio proposamenaren emaitza laburtzen da.*

*Juan Ramón Osorio MANAGEMENT ICSAko ordezkaria egon da Batzarrean, balorazio prozeduraren alderdiak azaltzeko asmoz. Nabarmendu egin du lanpostuen berriazko osagarriari dagokionez, dedikazio edo prestasuneko kopuruak ez direla adierazi, eta udalak zuzenean zehaztu beharko dituela kontzeptu horiek.*

*Balorazioa egin duen enpresako ordezkariak egin zaizkion galderari erantzun die, eta bertaratutakoak prozedurari buruzko guztiaren berri geratu dira.*

*Barne Araubideko Informazio Batzordeak gaia mahai gainean uztea erabaki zuen, espedientea aztertu ahal izateko eta ondoren, hurrengo batzarrean, irizpena ematek. "*

Ondoren, otsailaren 18ko batzarrean onetsitako 28/04 irizpenaren arabera, aldeko irizpena eman zitzaion *Management ICSAk* proposatutako lanpostuen balorazioari; beraz, *dedikazio bereziagatik* esleitu beharreko osagarria duten langileei eman beharreko berriazko osagarriaren zenbatekoa zehaztu gabe geratu da, eta zehaztu beharko da.

Gobernu Taldeak, azkenean, Udal honetako ELA eta LABeko sindikatu-sailtako ordezkariekin batzartu ondoren (hurrenez hurren Enpresa Batzordea eta Langileen Batza



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

osatzen dutenak), lanpostuen balorazioa eta espedientean agertzen den zeregin-gidaren proposamena egin du.

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak**, aldeko irizpena eman dio *Management ICSA* proposatutako Lanpostuen Balorazioari eta zenbait lanposturako dedikazio edo prestasun bereziaren esleipen moduan espedientean agertzen diren zenbatekoei. Hala ere, Ofizial Ondokoa lanpostuaren balorazioa eta zeregin-gida zehaztu gabe geratu da. Honakoa izan da bozketaren emaitza: Aldeko botoak: EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jauna, Javier Bidea Molinillo jauna, Iñaki Goikoetxea Gordo jauna eta Bea Resa Bardeci andrea; PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jauna eta Mercedes Angulo Ordozgoiti; IU-EBko Rubén Belandia Fradejas jauna eta EAko Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jauna. Abstentzioak: PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna eta Aiala Eguiluz Rodríguez andrea; beren iritzia udalaren osoko bilkuran emango dutela adierazi dute.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

- Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, honakoa erabaki du:
  - o Onetsi egingo da udal honetako Lanpostuen Balorazioa, "*Management ICSA*" enpresak egindakoa, hain zuzen ere.
  - o Onetsi egingo dira zenbait lanposturen dedikazio edo prestasun bereziaren esleipen gisa espedientean agertzen diren zenbatekoak.
  - o Onetsi egingo dira LPZko 127. lanpostuari (Udaltzaingo Zerbitzuko Ofizial Ondokoa) dagozkion zeregin eta balorazioak.
  - o Onetsi egingo da erabaki honetatik eratorritako ondore ekonomiko guztiak 2004ko urtarrilaren 1era atzeraeragitea.

**14.- LEIOAKO UDALEKO SOZIALISTEN UDAL TALDEAREN MOZIOA, 18 URTEETATIK AURRERA OINARRIZKO ERRENTA JASOTZEKO ESKUBIDEARI BURUZKOA:** 2004ko otsailaren 24an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 147/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2004ko otsailaren 18an hartu zuen 29. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Susana González Rómulo andreak, Udaleko Talde Sozialistako bozeramaileak, idazkia aurkeztu du (sarrera-erregistroko zenbakia: 916/04); horren edukia bertaratutako kideei emandako kopietan dago zehaztuta, eta hemen ere bildu da, hitzez hitz:

*"Susana González Rómulo andreak, Udaleko Talde Sozialistako bozeramaileak, honako MOZIOA aurkeztu du, "18 urteetatik aurrera Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubideari" buruzkoa.*

### OINARRIA

*Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1988 Legeak, azalpenetan, gizarte bazterkeria pobreziarekin bakarrik identifikatzen ez den zerbait konplexua dela dio. Horrela bada, dirurik ez duenari dirua ematea ez da nahikoa izango integratuta dagoela esateko. Gizarte bazterkeria, azken batean, baztertutako pertsonen ezaugarriek definitzen dute. Ikuspegi orokorra kontuan izanda, honakoak hartuko dira baztertutako pertsonatzat: "neurriren batean*



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

*herritar estatusa ematen dieten gizarte-eskubideetakoren bat burutzeko gaitasunik ez duten pertsonak, hau da, eskubide horiek burutzeko nahikoa baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez duten pertsonak".*

*Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindaria izan da, 1989. urtean Pobreziaren kontrako Borrokaren Plan Integrala abiarazi baitzuen. Ordudanik, bazterkeriaren kontrako borroka, hainbat gorabehera izan dituen konstantea izan da eta, azkenean, gizarte bazterkeriaren aurkako legea eragin du.*

*Denborak aurrera egin heinean, lege hori aldatu eta osatu egin da, berau garatuz. Lehenengo legeak zituen hutsune batzuk zuzendu egin dira. Gizarte Eskubideen Gutunaren abenduaren 27ko 10/2000 Legeak Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubidea dakar, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera ordeztuz, zerbitzuaren izaera juridikoa zein oinarria aldatzen ez dituen arren. Ondoren, 4/2003 Legeak bazterkeriaren aurkako legea aldatzen du, laguntza jasotze ahal izateko 25 urte baino gehiago izatearen betekizunari dagokionez.*

*4/2003 Legeak "23 urte baino gehiago izatea" ezartzen du eta, horrela, 25 urte ez izateagatik bakarrik laguntza jasotzeko eskubidetik kanpo geratzen ziren beste gazte asko hartzen ditu. Hala ere, beste hainbat gazte daude, adinez nagusiak eta ondorioz betebeharrak dituzten subjektuak direnak, gizarte bazterkerian eror daitezkeenak, eta ezin dute Oinarrizko Errenta jaso, ez dituztelako 23 urte. Agerikoa dirudi betebeharrak eta eskubideak antzera joan behar direla eta, ondorioz, nahikoa arrazoituta dago Oinarrizko Errenta jasotzeko Eskubideen Titularrak 18 urte baino gehiago izan eta gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonak izan behar direla, hori baita adinez nagusi izateko muga.*

*Arrazoi horiek oinarri hartuta, honakoa ipini dugu Leioako Udalaren osoko bilkurak onetsi dezan:*

*1 Leioako Udalaren osoko bilkurak uste du gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonak Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubidea adin-nagusitasunetik aurrera burutu behar da, hau da, 18 urtetatik aurrera.*

*2 Leioako Udalaren osoko bilkurak agindeia egin nahi du, Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorrean eta Gizarteratzeko Erakundeen Arteko Batzordean dituen ordezkarien bitartez, osoko bilkura honen akordioa Eusko Jaurlaritzari helaraz diezaioten.*

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak** egoki iritzi dio gaia udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeari.

## **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran aztertzeko **dekretua eman du**.

**PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak** honakoa adierazi du:

Adierazi du labor arituko dela mozioa berez azaltzen baita eta aurreko agintaldietan egin dituzten bestelako mozioekin eta bestelako proposamenekin bat datorrela uste duelako, gizarte larrialdiko laguntzena esaterako.

Adierazi du Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legeak gizarte bazterkeria denari buruz garaiekin gehiago bat datorren definizioa planteatzen duela eta ekonomikoa baino ez den definiziotik, pobreziatik adibidez, bereizten duela, eta hiritarra gizarte bazterkeriako egoeran egon dadin saihesten duten hainbat neurri edo baliabideez mintzatzen dela, berau bere eskubideak burutzeko gaitasunik ez dutenen egoera delarik, hau da, eskubide politikoak, zibilak eta, jakina, sozialak. Arazo edo egoera ekonomiko hutsa ere ez dela, pobrezia izango litzatekeena, argi eta garbi ere uzten du, gauza gehiago ere delako.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Horri dagokionez, adierazi du, definizio horrekin bat etorri eta, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legean eta ondoren Gizarte Eskubideen Gutunean gizarteratzeko helburua erdiesteko asmoz planteatzen dituzten neurrietako batzuekin bat etorri, logikoa dirudiela oinarritzko errenta ematea pobreziaren arazoa edo ageriko egoera desagerrarazten duen neurri ekonomikotzat planteatzen baldin badute bestelako esparru batzuetan lan egin ahal izateko, logikoa dirudiela, bestalde, oinarritzko errenta hori eskubideak eta betebeharrak burutu ahal dituzten guztiei eman ahal zaiela ulertzea, eta, antza denez, berau 18 urteko adinean ezarri dute, eta 18 urterekin hainbat betebeharrak izatea baina bestelako eskubideak ez izatea bidezkoa ez dela iruditzen zaie, eta horiek batera joan behar direla dirudiela baina hala ez doaz.

Horri dagokionez, adierazi du erantzukizuna Leioako Udalarena ez dela baina uste dute Udalek erantzukizunari duenari, kasu honetan Eusko Jaurjaritzari alegia, berau 18 urtetik aurrera egin dezatela eskatu behar diotela, izan ere, 18 urte dituzten pertsona eta herritar zenbait gizarte bazterkeriaren definizioan sartzen baitira, eta, hori dela eta, ez dute ulertzen legeak berak egiten duen gizarte bazterkeriako definizioan sartzen baldin badira arazo hori konpontzeko legeak ematen dituen eskubideak edo neurriak burutzeko aukera zergatik ez duten izan behar.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi du gai garrantzitsua iruditzen bazaie ere, PSE-EE-PSOeko bozeramaileak adierazi duen bezalaxe, ez dela udal eskumenekoa, eskumena Gobernu Autonomikoan dagoela baizik, eta ondorioz, Eusko Legebiltzarraren eremuan dela gai hori aztertu behar dutenean, izan ere, Gizarte Eskubideen Gutunaren barruan, Gizarte Bazterkeriako Legearen barruan dagoen gaia baita eta, ondorioz, gaiaren izaera bera errespetatzeagatik ere, Eusko Legebiltzarrean dela gai hauei heldu behar dieten lekua ulertzen dute, horregatik ez dira gaiaren mamari heldu behar eta, ondorioz, abstentzioa eman behar dute.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:**

Hausnarketa orokorra, eta ez zehazki mozio honi dagokionez, eman behar duela adierazi du, izan ere, osoko bilkuretan udal eskumenari eragiten ez dioten edo udalak ebatzi behar ez dituen geroz eta mozio gehiago ekartzen dituztelako sententzia zabalitzen ari dela, talde osoak ere iritzi hori baduela pentsatzen duela, uste baitu, eta udalak erabaki behar dituen gaiak, aldiz, ia %90ean, aho batez erabakitzen dituztela eta, halere, mozio mota horietan, udal eskumenekoak ez direnetan, eztabaidak politikoagoak izaten direnetan, harreman pertsonalak gaizkiagotzen dira, beraz, Eusko Alderdi Jeltzale bezala mozio horiek osoko bilkuretara ez eramateko eta ekartzekotan ez eztabaidatzeko jarrera hartu behar duela adierazi du.

Oraingo kasu honetan egia dela uste du, hau da, Leioako hiritarrei beste edozein herritakoei bezalaxe, eragiten dien arazoa dela, baina, era berean, PPko bozeramailea den Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak adierazi duen bezala, berau eztabaidatzeko tokia Eusko Legebiltzarra dela eta ez udaletxea ere uste du.

**PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo jaunak honakoa adierazi du:**

Lehenik eta behin, PPko bozeramailea den Xabier Olabarrieta jaunari erantzun dio, adierazi dio ez dela eskumen arazoa. Hona ekarri duten mozioen artean eskumenei buruzkoa eta udalarekin zerikusia duena bat izatekotan hori, hain zuzen ere, honako mozio hau dela adierazi du. Izan ere, ekarri dituzten guztietan, baten batek herritarrei eragiten badie, gure kasuan Leioakoei, honakoa dela uste baitu. Horri dagokionez, adierazi du erabakia Legebiltzarrak duela baina oinarritzko errenta ematen duena Leioako Udalaren Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak direla, arazoa agertzen da 18 urteko herritar bati esan behar diotenean horretarako eskubiderik ez duela. Hortaz, beste esparru batean erabaki beharreko arazoa dela eta Udalak ez duela zerikusirik esatea ez zaio ondo iruditzen. Izan ere, orain dela gutxi Batzorde batean



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Eusko Jaurlaritzari elbarrientzako etxebizitzak modu zehatz batera egiteko eskatzeko txostena onetsi baitzuten udal honi eta udal guztiei eragiten baitzien. Hortaz, oraingo kasu honetan eskumen arazoa dela eta osoko Bilkuran aztertu nahi ez izatea bidezkoa ez dela iruditzen zaio.

EAJ-PNVko bozeramailea den Eneko Arruebarrena jaunari erantzun dio, udal eskumenekoak ez diren mozioak ez aurkezteko asmoa hartu dutela dioen hausnarketari dagokionez, adieraziz ardura saihesteko modua iruditzen zaiola. Izan ere, eskuartean dagoen gaiak Leioako hiritarrei nabarmen eragiten baitie, ondorioz, udal bizitzarekin zerikusia duen gaia dela uste duelako, udalak betearazten baitu eta arazo horrek egunero nola eragiten duen ikusten ari baitira.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak** honakoa adierazi du :

Lehenik eta behin, udal eskumenekoak ez badira ere, osoko bilkurara mozioak ekar ditzaten ez dutela eragotzi behar adierazi du.

Bestaldetik, ardura saihesteko modua denik ez duela uste adierazi du, baizik eta Eusko Alderdi Jeltzaleak legebiltzarraren eskumenekoa den gai baten inguruan iritzi antolatua duenean berau Legebiltzarrera eramango duela adierazteko modua den, eta horrek eztabaidak antolatzeko modua dela inplikatzeko du, eta udalean eragina duten gaiak, ordea, osoko bilkuran eztabaidatuko dituztela adierazi du.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du :

PSE-EE-PSOeko alderdiak eman duen argudioari erantzunez eztabaida hau eragin duen gaiak Leioako hiritarrak lotzen dituela adierazi du, Eusko Legebiltzarretik, Kongresutik edo Europako Parlamentutik edo baita udalaz gaineko eremuetatik ere datozen beste lege askok ere lotzen dituzten bezala, eta horri buruz Udalbatza honi gai mota hauek, zehazki, eztabaidatzea ez dagokiola uste du.

## **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalbatzak, osoko bilkuran, **baztertu** egin du PSE-EE-PSOEk "*18 urteetatik aurrera Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubideari*" buruz aurkeztutako mozioa. Honakoa izan da erabakia hartzeko bozketan egondako emaitza: Mozioa onestearen kontrako hamaika boto, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak eta EAko zinegotziarena, hain zuzen ere; aldiz, aldeko lau boto egon dira, PSE-EE-PSOeko zinegotzienak; halaber, bost abstentzio ere egon dira, batzarrean dauden PPko hiru zinegotzienak eta IU-EBko bi zinegotzienak.

**15.- EB-IUko RUBÉN BELANDIA FRADEJAS ZINEGOTZI JAUNAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, NAZIO ASKAPENERAKO ARMADA ZAPATISTA ALTXATU ZENETIK 10 URTE BETE DIRELA ETA:** 2004ko otsailaren 3an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 74/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2004ko urtarrilaren 27an hartu zuen 12. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Aipatutako zinegotziak erabaki proposamena aurkeztu du (sarrera-erregistroko zenbakia: 414/04); hona hemen, hitzez hitz:

*"2004ko urtarrilaren 1ean, 10 urte bete ziren EZLN Askapen Nazionaleko Armada Zapatistak altxamendua egin zuela, Mexikoko indigenen eskubideen eta duintasunaren alde. Gauza ugari gertatu dira hamarkada*



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

honetan, eta ugariak izan dira, halaber, nazio mexikarrak eta bertako jatorrizko herriek jasan behar izan dituzten ezeztapenak eta laidoak, herrialde honentzako hain garai erabakigarrietan, gainera.

Lehenik eta behin, azpimarratzekoak dira EZLNk herrialde horretako demokrazia, gizarte eta erakunde garapenari egin dizkion ekarpen garrantzitsuak. Horri esker jakin izan zuen Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Itunari garaiz ezetz esaten; izan ere, tresna horrek hiriburu handiari baino ez dizkio ekarri onurak. Aitzitik, sakon egin die kalte herrialdeko ezin konta ahala nekazari, industria eta merkataritza ekoizleen ongizate eta lehiakortasun mailei. EZLNren ahaleginak demokraziaren alorrean ere izan du eraginik: epe honetan Mexikok lorpen esanguratsuak izan ditu demokraziari begira. Gizarteko kezka onenekin konpromisoa hartuz eta erakundeak garatzen lagunduz, herrialdearen demokratizazioa bultzatu du: ekarpen honen neurria zehaztearren, gogora dezagun nola bultzatu eta bermatu dituen EZLNk herri galdeketa ugari, eta, batez ere, nola aldarrikatu dituen, suhar eta adoretzu, herri indigenen eskubideak, beren etorkizunari buruz erabakiak hartzeko eta nazio mexikarrean antolatzeko eta gobernatzeko moduak aukeratzeko.

Bestalde, zapatismoa ezinbesteko faktorea izan da Mexikoko gizarteak herrialdeko herri indigenen duintasuna eta errespetagarritasuna ulertu eta aitortzeko. EZLNk, azken 10 urteotan herrialdea gidatu duten gainerako administrazioek ez bezala, une oro eutsi dio bakearen alde egiteko helburuari. Era berean, hasiera-hasieratik bermatu ditu San Andresko hitzarmenak: testu juridikoak, Mexikoko herri indigenek eta gizarteko alderdi gehienek Chiapasen bakea lortzeko eta herri indiarrei legez dagozkien eskubide eta abantailak berriz ematen hasteko biderik egokienak bezala ikusten dituztenak. 1994ko urtarrilaren 1ean zapatistek susperraldi hura izan ez balute, ez zen inola ere erdietsiko Mexikoko herri jatorrizkoen eskubideen alde egiteko eta agenda nazionalaren erdi-erdian gai hori kokatzeko balio izan zuen gizarte adostasuna —nazionala eta nazioartekoa—; ez, bederen, gaur egun ezagutzen dugun moduan.

Bestalde, iragan hamarkadan barrena, EZLNk hainbat gauza egin ditu: argi eta garbi salatu ditu klase politiko nazionalaren bizio eta mugak; gehiengoaren interesen kontrako indar guztiak desagerrarazteko dagoen beharra nabarmen azpimarratu du —horixe baita Carlos Salinas, Ernesto Zedillo eta Vicente Foxen gobernuak egin dutena—; eta eragile gogor eta moralki egonkorra izan da Mexiko solidarioago, bidezkoago eta demokratikoago bat sortzeko zereginetan.

Zoritxarrez, 1994tik gaur arte herrialdean agindu duten gobernuak ez dira gai izan aipatutako horiek ulertzeko, eta ez dira herritarren eskaera eta beharrak asetzeko moduan egon. Horren adierazle dira San Andresko hitzarmenak ofizialki ez betetzea eta zapatisten eragina zuten eskualdeen etengabeko militarizazio eta paramilitarizazio egoera. Era berean, herri indigenek azken 10 urteotan ez dute arrazoirik aurkitu pentsatzeko agente nazionalak benetan prest daudela beren bidezko eskaerak onartu eta kontuan hartzeko: bizitza duin baten aldeko eskaerak, gizartea, politika eta ekonomia antolatzeko modu berezien esparruan. Horregatik guztiagatik, borroka zapatista ez da amaitu, oraindik ere bide luzea dauka egiteko, gizarte eta herri indar konprometituenei eta onenei eskutik helduta.

Azkenik, Mexikoko herri indigenei —eta, oro har, mexikar guztiei— bizitza duin eta garapen bidezko, demokratiko eta txertatzailea izateko aukera emateko beren ezinbesteko ahalegina, eta baita bizitza ere eskaini dutenei ohore egin behar diegu. Erabateko aitorpena merezi dute Acteal-eko biktimek, eta baita bestelako ekintza zapaltzaile arbuigarrietako biktimek ere; giza eskubideen alde egin duten ekintzaileek, intolerantzia eta xaxatze ofizialak pairatu behar izan dituztenek; eta, oro har, herri indigenen bidezko borroka bere egin duten mexikar guztiek. Horregatik, EZLNren aburuz eta helburu nazional gorenekin konpromisoa duten gizarte sektore ugariaren aburuz, altxamendu zapatista gertatu zenetik 10 urtera, herrialde bidezko eta demokratiko baten eskaria oraindik ere mexikar guztientzako etorkizun hobea lortzeko agendako zatirik erabakigarriena da. Horrenbestez, ondorengo aurkezten dugu:

### **ERABAKIEN PROPOSAMENA**

- 1.- Leioako Udalak bere elkartasuna adierazten dio Chiapasko ---lurraldean EZLNk azken 10 urteotan egin duen borrokari, indigenen bakea, demokrazia, justizia eta duintasuna lortzearren.
- 2.- Leioako Udalak eskatzen du aska ditzatela borroka honekin lotura izateagatik soilik atxilotu dituzten preso guztiak.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

3.- Leioako Udalak gune hori desmilitariza dezaten eskatzen du, baita Chiapasen legez kontra jarri dituzten 655 kanpamenduak ken ditzaten ere.

4.- Leioako Udalak indarkeria gaitzesten du zein-nahi gatazkari irtenbidea bilatzeko bide gisa, eta, horregatik, Mexikoko Gobernuari eskatzen dio bete ditzala San Adresko Hitzarmenak. Hain zuzen, Adiskidetasun eta Bakerako Batzordeak (Cocopa) egindako ekimena lege bihur dezala.”

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak** aurkeztutako erabaki proposamena udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko irizpena eman du.

## EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran aztertzeko **dekretua eman du**.

**IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Kasu zehatz honetan 94ko Gabon zaharreko matxinadak orain bizi dituzten gauza askotan eragina duela adierazi du. Horrek zaharra zen egoera bati eman zion aire berria zela eta, erresistentziako 500 urte, praktikan bortxazkoa ez den matxinada armatuko bestelako egoera ekarri dutenak. Horrek neurri gabeko erantzuna jaso du gaur egun oraindik jarraitzen duena, eta sabaia, etxebizitza, janaria, ikasketak, lana eta, batez ere, bere etorkizunaz erabakitzeko gaitasuna bezalako gauza errazak aldarrikatzen dituzten pertsonengandik gertu daudenei denek izan behar ditugun oinarrizko aldarrikapenak, minimoak, direla iruditzen zaie. Eta, berez, horietako asko eguneroko bizimoduan ere agertzen dira eta oso modu desberdinean indarrean jartzen dituzte, eta horregatik, bihar Leioan gertatuko denari eragiten ez badioten arren, munduan gertatzen denari eragin ahal diotela uste du. Horri dagokionez, Leioako Udallerriak, matxinada armatuko izaera ukan arren, bakearen aldeko eta eskubiderik gabe utzi dituztenen eskubideak aitortzearen aldeko mugimendua ere baden mugimenduaren aldeko elkartasunezko jarrera plazaratu dezan adierazi nahi du.

Amaitu du adieraziz mozio mota horiek osoko bilkuretan eztabaidatzea ongi dagoela eta, gainera, erabakiak har ditzaten eta, ahal bada, horiek bete ditzaten.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi du, aurreko puntuaren ildotik, puntu honetan ere abstentzioa eman behar dutela aurreko arrazoi berberengatik. Talde politiko orok egoki iritzitako proposamenak edo mozioak osoko bilkurara ekartzeko eskubidea errespetatzen dutela, udalbatza honi gai honen inguruko iritzia ematea ez dagokiola iruditzen zaie, hortaz, abstentzioa eman behar dutela adierazi du.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak** honakoa adierazi du:

Puntu honetan aurreko puntuan azaldu duten berbera adierazi du. Halere, beragatik balitz sinatuko lukeela baina talde politiko gisara egin dezakeen ez dakiela adierazi du.

## BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran, Nazio Askapenerako Armada Zapatista altxatu zenetik 10 urte bete direla-eta EB-IUK aurkeztutako mozioa **oneste** erabaki du. Honakoa izan da erabakia hartzeko bozketaren emaitza: IU-EBko bi zinegotziek aldeko botoa eman dute; hamazortzi abstentzio egon dira, batzarrean dauden PPko hiru zinegotzienak, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak eta EAko zinegotziarena. Beraz, erabakia,



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Toki Araubidearen Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.1. artikuluan aurreikusitako gehiengoarekin hartu da.

## **16.- IU-EBko RUBÉN BELANDIA FRADEJAS ZINEGOTZI JAUNAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, MARTXOAREN 8A “EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA” OSPATZEA DELA**

**ETA:** 2004ko otsailaren 24an Tokiko Gobernu Batzarrek egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 148/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2004ko otsailaren 18an hartu zuen 30. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Aipatutako zinegotziak jarraian datorren testua aurkeztu du, udalaren osoko bilkurak horren inguruko erabakia har dezan:

*“Tokiko Araubideko Oinarrien Legeak argi eta garbi adierazten du zein diren udalek dituzten eskumenak era guztietako jarduerak sustatu eta herritarren beharrei erantzutera bideratutako zerbitzu publikoak antolatzeko.*

*Hortaz, Tokiko Administrazioak legezko gaitasuna eta erantzukizuna du berdintasunaren aldeko politika globalak indarrean jartzeko.*

*Hala, udal politikak marko politiko eta administratibo bat behar du, aurrekontu, giza baliabide eta baliabide material batzuekin, desberdintasunaren prebentzioa eta emakumeen gizarte sustapena irizpidetzat harturik, asistentzia hutsetik haratago joango diren planteamenduak egingo dituen eta emakume guztiei zuzendutako interbentzio global bat indarrean jarriko duena.*

*Ezker Batua-ko Udal Taldearen iritziz, biztanleriaren zati jakin bati zuzendutako politikak, emakumeei zuzendutakoak kasu honetan, ezin dira beste instituzio esparruetako politiketatik bereizi, multzo beraren zati izan behar dute, zehar lerroen modukoak, zinegotzigo guztien parte-hartze eta laguntzarekin.*

*Horrela, ekintza eta jardunbide politikoek emakumeen parte-hartzea sustatu eta generoen arteko solidaritatea eta berdintasuna bultzatu behar dute.*

*Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, egun aproposa da Udal honek bere borondatea adierazi dezan emakumeen berdintasunaren aldeko lanean gogor aritzeko, helburu hori ez dadin asmo hutsean geratu.*

*Horregatik guztiagatik, Ezker Batua-ko Udal Taldeak honako mozio hau aurkezten du, Udalbatzan onartua izan dadin:*

- **Administrazioko hizkuntza feminizatzea.**
- **Kale edo plaza berriei emakumeen izenak jartzea.**
- **Sorzen den plaza berri bati “martxoaren 8a” izena jartzea, edo dagoen plaza bati izen hori jartzea.**
- **Genero Bortizkeriaren kontrako planak eskatzea.**
- **Enplegu planak eskatzea, emakumeari prestakuntza jardueretan sartzeko laguntzeko.**
- **Emakume etorkinen integrazioa sustatzeko politikak indarrean jartzea.**
- **Berdintasun baloreak sustatu eta zabaltzea, generoen inguruko aurreiritziak eta estereotipoak uxatzeko.**

Barne Araubideko Informazio Batzordeak egoki iritzi dio gaia udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeari.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

## EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran aztertzeko **dekretua eman du**.

Osoko bilkuran bertan, IU-EBko ordezkariak berak, mozioa baztertu du, horren ordezkari udal talde politiko guztiek berretsitako beste bat aurkeztu baita, jarraian hitzez hitz idatzitakoa, hain zuzen ere:

### **"MARTXOAREN 8a, EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA"**

*Martxoaren 8a egun enblematikoa da gizonezko eta emakumezkoen arteko eskubide berdintasunak aldarrikatu eta aintzatesteko, gizarte bidezkoago eta orekatuagoa eraikitzeko funtsezko oinarri gisa.*

*Era berean, egun hau ospatzeak, historian zehar berdintasunerako bidea landu duten emakume guztien ahalegin eta ekarpena aintzatesteko ere balio behar duela uste dugu.*

*Begien bistakoa da geure demokrazia sortu zenetik hainbat aurrerapen egin direla eskubide eta aukera berdintasunaren aldeko politikak bultzatzeari esker, bazterkeria positiboaren filosofia oinarri hartuta.*

*Hala eta guztiz ere, aurrerapen horiek ez dira nahikoa. Oraindik ere oinarrizko eta egiturazko urritasun ugari daude laneratzeko eremuan, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko eremuan, politikan eta erabakiak hartzeko mekanismoetan parte hartzeko eremuan, genero indarkeriaren eremuan.... Eta horrek, nola ez, eragin negatibo eta dramatikoak dute milaka emakumeen duintasun, osotasun eta giza garapen eta gizarte garapenean.*

*Gizartean nabari diren urritasun eta oztopo horiek emakumeen eskubideak guztiz burutzea zailtzen dute eta, horrela, geure sistema demokratikoa inperfektoa izatea eragin; izan ere, bertako biztanleen erdia baino gehiagori ez dizkio bere eskubideak guztiz aintzatesten.*

*Gauzak horrela, botere publikoek oro har eta tokiko administrazioek bereziki, ezin dugu errealitate hori alde batera utzi, eta geure gain hartu behar dugu horretan dugun erantzukizuna, genero berdintasuna sustatuko duten neurriak artikulatuz eta, zeharkako jardueren bitartez, erabateko politiken alde eginez, laguntzarako baino ez diren planteamenduetatik haratago, eta emakumeek partaidetza aktiboa izanik.*

*Hori guztia dela eta, Leioako udalaren osoko bilkurak, gizonezko eta emakumezkoen eskubide berdintasuna lortzeko asmoz, honako neurriak hartzeko konpromisoa hartuko du:*

*1.- Genero berdintasuneko balioak sustatuko dira udal bizitzako alderdi guztietan, geure eguneroko kulturako balio bihurtzeko.*

*2.- Emakumeak laneratzeko handitu eta sendotzeko jarduerak garatzen lagunduko da; era berean, udal eremuan ekintza positiboak ezartzea bermatuko da, gizon eta emakumezkoen artean lan-bizitza eta familia-bizitza hobeto uztartzen laguntzeko.*

*3.- Emakume immigranteak integratzen laguntzeko jarduerak sustatuko dira.*

*4. Leioako udalak agindeia egingo die udalaz gaindikoa administrazioei, genero berdintasunerako eta emakumea gizarteratzeko beharrezko neurriak har ditzaten eta beren laguntza indar dezaten; horrela bada, bereziki, berdintasunaren alde aurrera egiteko beharrezko lege-neurriak (Genero indarkeriaren aurkako legea) zein exekutiboak (emakumea laneratzeko neurri zehatzak hartzeko planak, genero indarkeriaren aurkako planak, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako estatuko agentzia,...) har ditzaten eskatuko zaie.*



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

5.- *Agindeia egingo zaio Eusko Jaurlaritzari genero arloan bazterkeria dakarten jarduerak erausten jarrai dezan.*

**IU-EBko Iñaki Gomediorrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Gai politiko batean erabakia aho batez hartzea oso interesgarria dela adierazi du. Halere, aurtan inoiz baino gehiago, martxoaren 8koa bezalako jaia berriro ere aldarrikatzeko ekitaldia bilakatzen dela uste duela azpimarratu beharra dagoela gaineratu du. Eta aldarrikapen garrantzitsua, inoiz baino indar handiena duena, eta geroz eta gehiago, neurri zehatza hartzea dela esan du, eta neurri zehatza Generoko Indarkeriaren aurkako Legea da, egoera hori, bere ustez, atzeraezina delarik. Horregatik, puntu hori garrantzi handikoa zela uste du, gainerako taldeak ere ados baldin badaude, zalantzarik gabe, guztien adostasuna ere oso garrantzizkotzat jotzen duela adierazi du.

### **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalbatzak, osoko bilkuran eta aho batez, martxoaren 8a "Emakumeen Nazioarteko Eguna" ospatzeko udal talde politiko guztiek babestu eta sinatutako mozioa onestea erabaki du.

## **II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA**

**17.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA UDALAREN GOBERNU BATZORDEAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2004-01-17tik 2004-02-20ra**: Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak eta Udalaren Gobernuaren Batzordeak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

**Udalaren osoko bilkura** jakinaren gainean geratu da.

### **18.- PRESAZKO MOZIOAK**

Atal honetan ez da moziorik aurkeztu.

### **19.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honako erregua adierazi du:

Urtarrilaren 13ko Barne Araubideko Batzordean Alkatetza-Idazkaritzari hala Udalbatza aretoan nola Udaletxeko kanpoko aldean Bere Maiestatea Erregearen erretratua eta Espainiako bandera ipintzeari dagokionez legeak esaten duenari buruzko txostena egiteko eskaera aurkeztu zutela adierazi du. Halaber, Alkatetzaren txostena Batzordeari otsailaren 1a baino lehenago helaraz diezaioten ere eskatzen zutela gaineratu du; eta agerikoa denez, otsailaren 1a eta hilaren bukaera gaude, eta Barne Araubideko Batzordeari txostena ez diotela eman adierazi du. Orain dela bi asteko Barne Araubideko Batzordean berau gogorarazi zutela esan du eta txostena helarazteko denborarik izan ez zutela argudiatu zutela adierazi du. Talde honek txostena, gaurko egunez, ez duela oraindik Alkatetzak egin baino ez du adierazi nahi.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Hortaz, Barne Araubideko Batzordeari ahalik eta lasterren eramateko erregutu dute, horrela talde guztiek horri buruz egoki iritzitako neurriak hartu edo proposatu ahal ditzaten.

Alkate-Udalburu jaunak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak**, honakoa adierazi du:

Adierazi du Xabier Olabarrieta jaunak orain dela bi aste, Barne Araubideko Batzordean, oso argi zuela esan zuela; erregulazioa oso argi zegoela. Hortaz, txostena ez duela behar ulertzen duela esan du, izan ere, erregulazio juridikoa zen den argi baitu.

Adierazi du lan asko dagoela, baina, halere, honen atzean estrategia politikoa dagoela, errespetatzen duena baina elikatuko ez duena. Hori dela eta, PSE-EE-PSOeko bozeramailea den Susana González andreak Udal honetan lan egiteko gai garrantzitsuagoak daudela adierazten duten hitzei heltzen diela adierazi du.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaz jaunak** honakoa adierazi du:

Bere talde politikoak, jakina, horri buruzko jarrera eta irizpidea zein den argi duela azaldu du. Hain zuzen ere, eskaera horren jatorria Alkatetzatik horri buruzko txosten juridikoa helaraz diezaieten dela esan du, izan ere, horren berri izan dezaten interesgarria dela uste baitute eta horregatik txostena eskatu dutela esan du.

Nolanahi ere, gaia azalekoa ez dela, gai garrantzitsua baizik, uste dute eta, bestaldetik, Alkatetzak txostena ez egiteko asmoa baldin badu, txostena ez dutela egin behar adieraz diezaieten nahi dutela eta, orduan, bere taldeak horren ondorioz jardungo duela adierazi du.

**IU-EBko Rubén Belandía Fradejas jaunak** honakoa adierazi du:

Bere talde politikoaren erregua inork ez dezala banderei edo erregeari buruz hitz egiten minutu bakar bat gal izango litzatekeela adierazi du. Beste batzuek ere bestelako erretratu motak jartzeko eskaerak egin ahal izango litzaketela, eta gai horri buruzko txostenak ere eskatuko litzaketela eta, ondorioz, funtzionarioek gai horri eman beharko bailiokete esan du, baina hori bezalako kontu batean eta banderen inguruko eztabaida horietan Udal honetan ezin dutela minutu bakar bat ere galdu gaineratu du .

Eta iluntzeko bederatziak eta hogeita hamabost minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O E  
ALKATEA,

IDAZKARIA,